GIZARTE POLITIKAK
POLITICAS SOCIALES



2025eko Memoria

Gipuzkoako Foru Aldundia
Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cuidados y Políticas Sociales

ZAINKETA ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTO DE CUIDADOS Y POLÍTICAS SOCIALES

2025eko MEMORIA

AURKEZPENA

Memoria honetan 2025ean zehar egindako jarduera garrantzitsuenak jaso ditugu, kudeatutako programa eta prestazioak kontsultatzeko aukera eman eta Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak egindako jarduerei buruzko ikuspegi orokorra eta zeharkakoa eskaintzeko.

Gipuzkoa biztanleriaren zahartze bizkorra jasaten ari da, eta, 2030. urterako, kalkulatzen da mendekotasun-egoeran dauden adineko biztanleak % 26 handituko direla. Gure helburua da bermatzea zaintzak behar dituzten pertsona guztiek kalitatezko arreta pertsonalizatua eta komunitateari irekia izango dutela, eta foru-erakundearen erantzukizuna eta konpromisoa da, gaur egun eta etorkizunean.

Zaintza-ereduaren eraldaketa-prozesu batean murgilduta gaude, ikuspegi gizatiarrago eta komunitarioago baterantz eta pertsonen autonomian oinarritutako ikuspegi baterantz aurrera egitera bideratua. Eredu berri horrek ikuspegi asistentzial hutsa gainditzen du, pertsona erdigunean jartzeko, ingurunearekin eta komunitatearekin lotura estua duten laguntza pertsonalizatuak eskainiz.

Esparru horretan, 27 zentroren eraldaketa arkitektonikoa egiten ari gara, ikuspegi berri horretara egokitzeko. Era berean, dagoeneko hasi dira erreferentziazko hiru zentro berriren obrak: Adinberri, Pasaian; Arbes, Irunen; eta Errezabal, Elgoibarren.

Hala ere, zaintza-ereduaren eraldaketa ez da mugatzen arkitektura-aldaketa batera edo

PRESENTACIÓN

La Memoria que presentamos recoge las actividades más relevantes realizadas durante 2025, con el objetivo de ofrecer una herramienta que permita consultar los distintos servicios y prestaciones gestionados, así como disponer de una perspectiva global y transversal sobre el conjunto de actuaciones del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales.

Gipuzkoa está experimentando un envejecimiento poblacional acelerado, y se estima que, de aquí a 2030, la población mayor en situación de dependencia aumentará un 26 %. Es nuestro objetivo garantizar que todas las personas que necesiten cuidados dispongan de una atención de calidad, personalizada y abierta a la comunidad y es una responsabilidad y compromiso del ente foral, hoy y en el futuro.

Nos encontramos inmersos en un proceso de transformación del modelo de cuidados, orientado a avanzar hacia un enfoque más humano, comunitario y centrado en la autonomía de las personas. Este nuevo modelo supera la visión exclusivamente asistencial para situar a la persona en el centro, ofreciendo apoyos personalizados, cercanos y estrechamente vinculados a su entorno y a la comunidad.

En este marco, estamos llevando a cabo la transformación arquitectónica de 27 centros con el fin de adaptarlos a este nuevo enfoque. Asimismo, ya han comenzado las obras de tres nuevos centros de referencia: Adinberri, en Pasaia; Arbes, en Irun; y Errezabal, en Elgoibar.

No obstante, la transformación del modelo de cuidados no se limita a un cambio

azpiegiturak hobetzera, baizik eta zaintza-modu berri bat dakar, zainketen kalitatean eta harremanen indartzean oinarritua.

arquitectónico o a la mejora de las infraestructuras, sino que implica una nueva manera de cuidar, basada en la calidad de los cuidados y en el fortalecimiento de las relaciones.

Ikuspegi global hori ezin da ulertu Trantsizioko Gizarte Politiken Gipuzkoa 20>30 Agendarik gabe, eta horren barruan, etorkizunaren egoitzarako trantsizioaren Liburu Berderik gabe. Agenda gizarte-politikak etorkizuneko palanka gisa kokatzeko ahalegin kolektiboa da, eta bide bat eskaintzen du arreta, zaintza eta laguntza eredua aldatzen jarraitzeko Zaintza-Lurralde baterantz, lankidetzan oinarritutako gobernantzan, gizarte-esperimentazioan eta ebaluazio sistemikoan oinarrituta.

Esta perspectiva global no se puede entender sin la Agenda Gipuzkoa 20>30 de Políticas Sociales de Transición y dentro de la misma, el Libro Verde de transición hacia la residencia del futuro. La Agenda, constituye un esfuerzo colectivo por posicionar las políticas sociales como palanca de futuro y ofrecer un camino para continuar con la transformación del modelo de atención, cuidados y apoyos hacia un Territorio de Cuidados, basado en la gobernanza colaborativa, la experimentación social y la evaluación sistémica.

Pertsonalizazioa da ikuspegi berriaren ardatz egituratzailea, eta, horregatik, "Laguntza eta Zainketen Eredu Berria" gida aurkeztu dugu, zaintza-modu gizatiarrago, pertsonalizatuago eta komunitarioago bateranzko bilakaera markatzen duena.

La personalización constituye el eje vertebrador del nuevo enfoque y por ello hemos presentado la guía “Nuevo Modelo de Apoyos y Cuidados” que marca la evolución hacia una forma de cuidar más humana, personalizada y comunitaria.

Gidak modu erraz eta praktikoan jasotzen ditu zaintzaren egunerokoan sustatu nahi diren balioak eta portaerak.

La guía recoge de forma sencilla y práctica los valores y comportamientos que se quieren fomentar en el día a día del cuidado.

2030erako ezarri dugun helburuetako bat da mendekotasuna duten eta laguntza-premia duten pertsonen % 85ak beren etxean bizitzen jarraitzea, eta, beraz, etxean laguntza gehiago ematearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu. Kudeatzen ditugun mendetasun-laguntzak eta prestazioak, adinekoak 5 urte gehiago etxean egoten laguntzen dute.

Uno de los objetivos que nos hemos fijado para 2030, es que el 85 % de las personas dependientes y con necesidades de apoyo sigan viviendo en su domicilio por lo que seguimos apostando con ampliar apoyos en el domicilio ya que las ayudas y prestaciones de dependencia que gestionamos favorecen hasta en 5 años la permanencia en el hogar de las personas mayores.

Zahartzearen erronka lehentasuna da, bai ekonomiari dagokionez, bai plaza berrien hedapenari dagokionez. Alde horretatik,

El reto del envejecimiento es una prioridad tanto en términos económicos como en el despliegue de nuevas plazas. En este sentido,

mendekotasuna duten pertsonei arreta emateko sarea sendotzeko lanean ari gara, egoitza berriak eraikiz, hala nola Adinberri Pasaian, Arbes Irunen eta Errezabal Elgoibarren. Ekimen horien helburua ez da soilik lurraldearen asistentzia-gaitasuna handitzea, baizik eta zainketen humanizazioan eta adinekoek beren ongizateari buruzko erabakiak hartzean duten parte-hartze aktiboan oinarritutako arreta-eredu berritzaileak ezartzea ere.

trabajamos en la consolidación de la red de atención a personas dependientes con la construcción de nuevas residencias como Adinberri en Pasaia, Arbes en Irun y Errezabal en Elgoibar. Estas iniciativas no solo buscan ampliar la capacidad asistencial del territorio, sino también implementar modelos innovadores de atención basados en la humanización de los cuidados y la participación activa de las personas mayores en la toma de decisiones sobre su bienestar.

Biztanleriaren zahartzearekin lotutako eragile guztien artean (instituzionalak, sozialak eta ekonomikoak), sare eta ekosistema bat ehuntzen ari gara, gizartearen erronka horri modu positiboan erantzuteko eta, gainera, ekonomia berri bat sortzeko.

Entre todos los agentes relacionados con el envejecimiento de la población (institucionales, sociales y económicos) estamos tejiendo una red y un ecosistema que lo que pretende es atender a ese reto de la sociedad de un modo positivo y, además, generando una nueva economía.

Nabarmendu nahi dugu Zaintza Herrilab ekimenak bigarren saria jaso duela nazioarteko Quality Innovation Awards (QIA) ospetsuen Sektore Publikoko Berrikuntza kategorian. Zaintza Herrilabek tokiko zaintza-ekosistemen garapena bultzatzen du, beren etxeetan bizi diren eta hauskortasun eta mendekotasun-egoeran dauden adinekoen arreta eta zaintza hobetzeko. Ekimen horrek 31 udalerri aktibo biltzen ditu, eta 7.900 pertsona baino gehiago onuradun.

Queremos destacar que la iniciativa Zaintza Herrilab ha sido galardonada con el segundo premio en la categoría de Innovación en el Sector Público en la fase internacional de los prestigiosos Quality Innovation Awards (QIA). Zaintza Herrilab impulsa el desarrollo de ecosistemas locales de cuidados destinados a mejorar la atención y el cuidado de las personas mayores en situación de fragilidad y dependencia que viven en sus hogares. Esta iniciativa suma ya 31 municipios activos y más de 7.900 personas beneficiarias.

Gure ikuspegian funtsezkoa den beste alderdi bat nahi ez diren bakardadeei aurre egitea da. Fenomeno hori gero eta hedatuago dago, eta zuzenean eragiten du pertsonen ongizate emozionalean eta fisikoan. Europak lehentasunezko erronka gisa identifikatu du arazo hori, osasun mentalean eta bizi-kalitatean dituen inplikazioengatik.

Otro aspecto clave en nuestro enfoque es la lucha contra las soledades no deseadas, un fenómeno cada vez más extendido que impacta directamente en el bienestar emocional y físico de las personas. Europa ha identificado esta problemática como un desafío prioritario debido a sus implicaciones en la salud mental y la calidad de vida.

Korale Communityren hirugarren topaketan parte hartu dugu, Adinberriren eskutik, Lisboan. Han aurkezten dugu gure proiektu aitzindaria, etxean bizi diren adinekoen arrisku-egoerak goiz identifikatzera bideratua, bakardadearekin lotutakoak barne.

Hemos participado en el tercer encuentro de Korale Community, de la mano de Adinberri, celebrado en Lisboa. Allí presentamos nuestro proyecto pionero, orientado a identificar de forma precoz situaciones de riesgo en personas mayores que viven en sus hogares, incluyendo aquellas relacionadas con la soledad.

2024-2030 Gizarte Zerbitzuen Maparen indarraldiko bigarren urte honetan, helburuen betetze-maila desorekatua izan da. Hala ere, desgaitasuna duten pertsonentzako eta gizarteratzeko eguneko zentroetako, adinekoentzako asteburuko eguneko zentroetako eta babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako ezarritako plazen helburuak lortu dira.

En este segundo año de vigencia del Mapa de Servicios Sociales 2024-2030, el grado de cumplimiento de los objetivos ha sido desigual. No obstante, se han alcanzado los objetivos de cobertura de plazas en centros de día para personas con discapacidad y en centros de día de inserción, en centros de día de fin de semana para personas mayores, así como en las plazas destinadas a personas menores de edad en situación de desprotección.

2025ean Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak gauzatutako aurrekontua **573 milioi** eurokoa izan da, hau da, GFAren aurrekontu osoaren **% 47**.

El presupuesto ejecutado del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales en 2025 ha sido de **573 millones** de euros, que supone el **47%** del presupuesto total de la DFG.

Gizarte politiken gastu publikoa etengabe igo da azken hamarkadan, hainbat faktorek eraginda, besteak beste, 65 urtetik gorako herritarren pisu erlatiboa igotzea, buruko gaixotasunen zabalkundea patologia bikoitzak, edo gizarte bazterketaren eta babesgabetasun egoeren arriskua areagotzea.

El gasto público en políticas sociales ha aumentado de forma ininterrumpida en la última década, fundamentado por diversos factores, tales como el crecimiento del peso relativo de la población mayor de 65 años, la cada vez mayor incidencia de las enfermedades mentales, patologías duales o el aumento del riesgo de exclusión social y de las situaciones de desprotección.

2025ean, biztanleko gastua **734 eurokoa** izan zen.

En 2025, el gasto por habitante se sitúa en **734 euros**.

Ondoren, 2025ean egindako jarduketa garrantzitsuenak aipatu nahi dizkizuet, legealdi honetarako ezarritako helburuen esparruan.

A continuación, quiero destacar las principales actuaciones realizadas en 2025, en el marco de los objetivos planteados en esta legislatura.

1-ADINEKOENTZAKO ARRETA

1.1.- EGOITZETAKO ETA EGUNEKO ZENTROETAKO PLAZA BERRIAK

2024-2030 Gizarte Zerbitzuen Mapan, adinekoentzako egoitzetan 757 plaza eta eguneko zentroetan 235 plaza sortzea aurreikusten da.

2025ean, saldo garbia 43 plazakoa izan da egoitza-zentroetan, eta 41ekoa eguneko zentroetan. Horrek esan nahi du 2025erako aurreikusitako helburuaren % 40 gauzatuko dela egoitzetarako, eta % 61 eguneko zentroetarako.

Uztailean hasi ziren Elgoibarren Errezabal egoitza berria eraikitzeko lanak. Ekipamendu berria El Pilar zentro zaharraren lurzatian eraikiko da, eta 108 egoitza-plaza eskainiko ditu, bost bizikidetza-unitatetan antolatuta; horietako bat 20 plazako unitate psikogeriatriko bat izango da, bai eta 40 plazako eguneko zentro bat ere.

Irungo Arbes egoitzaren urbanizazio-obra abuztuan hasi zen, eta Pasaiako Adinberriko obrari, berriz, berriro ekin zaio, ezbehar batzuk izan ondoren, hala nola amiantoaren agerpena.

Txara 1 zentroaren obrak direla eta, 2025eko irailean, egoiliarrak lekuz aldatzeko deialdi publiko bat egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoan adinekoentzako egoitza-zentroetan plaza berriak ituntzeko. Horren bidez, 21 plaza itundu dira.

1-ATENCIÓN PARA PERSONAS MAYORES

1.1.- NUEVAS PLAZAS EN CENTROS RESIDENCIALES Y DIURNOS

En el Mapa de Servicios Sociales 2024-2030 se prevé la creación de 757 plazas en residencias para personas mayores y 235 en centros de día.

En 2025 el saldo neto ha sido de 43 plazas en centros residenciales y de 41 en centros de día. Esto supone un 40 % de ejecución sobre el objetivo previsto para 2025 para residencias y de un 61 % para centros de día.

En julio se iniciaron las obras de construcción de la nueva residencia Errezabal en Elgoibar. El nuevo equipamiento se levantará en la parcela del antiguo colegio El Pilar y ofrecerá 108 plazas residenciales organizadas en cinco unidades convivenciales, una de las cuales será una unidad psicogeriátrica con 20 plazas, así como un centro de día con 40 plazas.

La obra de urbanización de la residencia Arbes de Irun comezó en agosto y la de Adinberri, en Pasaia, se ha reanudado después de que haya habido algunos contratiempos, como la aparición de amianto.

En septiembre del 2025 se ha realizado una convocatoria pública para la concertación social de nuevas plazas en centros residenciales para personas mayores en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, derivada del traslado por obras del centro Txara 1 de San Sebastián, a través de la cual se han concertado 21 plazas.

2025eko azaroan, bigarren deialdia egin zen eta urte amaieran amaitu gabe zegoen.

En noviembre de 2025 se ha realizado la segunda convocatoria que, a fin de año, estaba pendiente de finalizar.

12/31n, Gipuzkoan, adinekoentzako **64** egoitza daude: guztira **5.374** plaza eskaintzen dituzte, eta horietatik **% 87**a Foru Aldundiaren sare publikokoa da.

A 31/12 Gipuzkoa dispone de **64** centros residenciales para personas mayores que ofertan **5.374** plazas, de las cuales el **87%** forman parte de la red pública foral.

Guztira, 2025ean, 50 plaza berri itundu ditugu adineko pertsonentzako egoitzetan, eta 7 kendu dira; horren ondorioz, 43 plaza positiboko saldoa dugu.

En total, en 2025 hemos concertado 50 nuevas plazas en residencias para personas mayores y se han suprimido 7, resultando un saldo positivo de 43 plazas.

Adinekoentzako eguneko zentroetan 43 plaza itundu ditugu eta 2 kendu dira. Nabarmentzekoa da "Cita Go ON" proiektuaren testuinguruan 30 plazako unitate bat itundu dugula Donostian, Alzheimer gaixotasuna duten mendekoak diren pertsonentzat, laguntza behar duten pertsonei arreta, orientazioa eta zaintza emateko, etxean eta komunitatean jarrai dezaten; zentroak 2026ko urtarrilan zabalduko ditu ateak.

En los centros de día para personas mayores hemos concertado 43 plazas y se han suprimido 2. Cabe destacar que en el contexto del proyecto “Cita Go ON”, hemos concertado una unidad de 30 plazas en Donostia, para la atención, orientación y cuidado de personas dependientes con Alzheimer, con el propósito de favorecer su permanencia en el entorno domiciliario y comunitario; el centro abrirá sus puertas en enero de 2026.

1.2.- MENDEKOTASUNAREN ARRETA PERTSONAREN OHIKO INGURUNEAN ETA FAMILIA INGURUNEAN

1.2.- ATENCIÓN A LA DEPENDENCIA EN EL ENTORNO PROPIO Y FAMILIAR

Mendekotasun prestazioetan egindako gastua **75.753.900** eurokoa izan da, aurreko urtean baino % 4 gehiago.

El gasto en prestaciones de dependencia ha ascendido a **75.753.900** euros, un 4% más que el año anterior.

Gainera, etxeetan mendeko pertsonei ematen zaien arreta beraien beharretara egokitzen dela ebaluatzen duen aldikako udal jarraipenean, **2.704** jarraipen egin dira.

Además, en el seguimiento municipal periódico que permite evaluar que la atención que se presta en los domicilios a las personas dependientes es la adecuada a sus necesidades, se han realizado **2.704** seguimientos.

Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren (LPPE) hileko gehieneko

Hemos aprobado la cuantía máxima mensual de la Prestación Económica de Asistencia

zenbatekoa onartu dugu, muturreko mendetasuneko III+ mailarako. Prestazio horrek bereziki kalteberak diren pertsona gutxi batzuen bizitza hobetzen lagunduko du, gehienak AEAko gaixoak.

Personal (PEAP) para el Grado III+ de dependencia extrema, que ayudará a mejorar la vida de un número reducido de personas, pero especialmente vulnerables, la mayoría de ellas, enfermas de ELA.

2. –DESGAITASUNA

2025ean, 4 plazetako saldoa dugu etxebizitzetan, eta 9 eguneko zentroetan.

Garuneko paralisia duten pertsonei arreta egokia emateko, Pagoetako Eguneko Zentroa jarri da martxan Urretxun, 24 plazakoa, eta 11 plaza etxebizitzetan. Eguneko zentroa eta Pagoetako etxebizitzak irekitzeak indartu egiten du udalerrian tokiko zaintza-ekosistema bat finkatzea.

Aurten, **"Hondartza Denontzat"** bainu egokituaren programaren barruan, desgaitasuna duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonei zuzenduta, Malkorbe hondartzan (Getaria) zerbitzua eskaintzeaz gain, Hondarribiko hondartzan ere eman da. Guztira, **914 pertsonak** parte hartu dute programan.

2.- DISCAPACIDAD

En 2025 tenemos un saldo de 4 plazas en viviendas y de 9 en centros de día.

Con el objetivo de garantizar una atención adecuada a las personas con parálisis cerebral, se ha puesto en marcha el Centro de Día Pagoeta en Urretxu, con una capacidad de 24 plazas, junto con 11 plazas en viviendas. La apertura del Centro de Día y de las viviendas de Pagoeta refuerza la consolidación de un ecosistema local de cuidados en el municipio.

Este año, en el marco del programa de baño adaptado **“Hondartza Denontzat”**, dirigido a personas con discapacidad y en situación de dependencia, además de ofrecerse el servicio en la playa de Malkorbe (Getaria), también se ha prestado en la playa de Hondarribia. En total, **914 personas** han participado en el programa.

3. – OSASUN MENTALA

2025ean ez dugu plazarik hitzartu osasun mentaleko baliabideetan.

Laguntza psikosozial komunitarioko programan **131** kasu artatu dira; 9.516 saio guztira.

3.- SALUD MENTAL

En 2025 no hemos concertado ninguna plaza en los recursos de salud mental.

En el programa de apoyo psicosocial comunitario se han atendido **131** casos con un total de 9.516 sesiones.

4.- ESPARRU SOZIOSANITARIOA

Lurralde-mailan, 2025eko Lurralde Kontseilu Soziosanitarioan 2025-2028ko Plan Operatibo Soziosanitarioa onartu da.

5.- ETXEKO LAGUNTZA

Zahartzearen erronkari aurre egiteko, etxeko zaintzara bideratutako politikei erreparatuko diegu.

Adinberri Fundazioaren Berrikuntzako Agenda Estrategikoaren erronketako bat etxean arreta integrala emateko eredu berria sortzea da.

Estrategiaren helburu nagusia da zerbitzuetan oinarritutako zaintza-eredutik pertsonetan oinarritutako zaintza-eredura igarotzea bultzatzea, eta, horrela, lurraldeko gizarte-politiketarako esparru berri bat sortzea.

2025ean etxez-etxeko laguntza zerbitzuan pertsona mendekotasun egoeran dauden **5.110** artatu dira eta autonomia duten **1.258** pertsona. **6.115** dira arreta jaso duten pertsona desberdinak (izan ere, urtean zehar hainbat pertsona pasatu dira modalitate batetik bestera).

Bestalde, **3.883** pertsona izan dira laguntza teknikoen onuradunak eta guztira **9.879** laguntza eman dira. Zerbitzu hau mendekotasuna eta desgaitasuna etxean artatzeko oinarrietako bat da.

Sendian programan **816** pertsona ezberdin artatu dira: 602 banakako laguntza

4.- COORDINACIÓN SOCIOSANITARIA

A nivel Territorial, en el Consejo Territorial Sociosanitario del 2025 se ha aprobado el Plan Operativo Sociosanitario 2025-2028.

5.- APOYO EN EL DOMICILIO

Afrontamos el reto del envejecimiento con la vista puesta en las políticas enfocadas al cuidado en el hogar.

Uno de los retos de la Agenda Estratégica de Innovación de la Fundación Adinberri, es la creación del nuevo modelo de atención integral en el domicilio.

El objetivo principal de la estrategia es impulsar la transición de un modelo de cuidados basado en los servicios a un modelo de cuidados basado en las personas, generando así un nuevo marco para las políticas sociales del territorio.

En 2025 se ha atendido en el Servicio de Ayuda a Domicilio a **5.110** personas en situación de dependencia y a **1.258** personas autónomas, siendo **6.115** las personas diferentes atendidas (ya que a lo largo del año hay personas que han pasado de una modalidad a otra).

Por otro lado, **3.883** personas han sido beneficiarias de ayudas técnicas, habiéndose concedido un total de **9.879** ayudas. Este es un servicio que se mantiene como una de las bases para la atención de la dependencia y de la discapacidad en el ámbito domiciliario.

En el programa **Sendian** hemos atendido a **816** personas diferentes: 602 en sesiones de

psikologikoko saioetan eta 214 laguntza taldeetan.

Atzegirekin sinatutako hitzarmenaren bidez **bizitza independentea** babesteko zerbitzuan **75** pertsona artatu dira, eta beste **24** Ortzadar programan. Era berean, desgaitasun fisikoa duten **30** pertsonari eman zaizkie dirulaguntzak, Departamentuak kudeatzen duen laguntza-programan parte har dezaten.

apoyo psicológico individual y 214 en grupos de apoyo.

En el servicio de apoyo a la **vida independiente** provisto mediante convenio con Atzegi, se ha atendido a **75** personas y otras **24** en el programa Ortzadar y. Asimismo se han otorgado ayudas económicas a **30** personas con discapacidad física para tomar parte en el programa de apoyo gestionado por el Departamento.

6.-INKLUSIOA

Gipuzkoa Elkar EKINen Gizarteratzeko II. Planak programen eta zerbitzuen ezarpena finkatzen du gizarte-bazterkeriari aurre egiteko eta lurraldean gizarteratzea errazteko.

Elkar Ekin Lanean estrategiaren esparruan, **aktibazioko, enplegagarritasuneko eta gizarteratu eta laneratzeko**, kalteberatasun-egoeran eta bazterketa-arriskuan dauden **3.071** pertsonari eman zaie arreta, eta **1.029** pertsonak enplegua lortu dute Gipuzkoan azken urtean.

6.- INCLUSIÓN

El II Plan de Inclusión Social de Gipuzkoa Elkar EKIN consolida la implantación de programas y servicios para atajar la exclusión social y favorecer la inclusión en el Territorio.

En el marco de la estrategia Elkar Ekin Lanean, a través de los **programas de activación, empleabilidad e inclusión sociolaboral**, se ha atendido a **3.071** personas en situación de vulnerabilidad y riesgo de exclusión y **1.029** personas han conseguido empleo en Gipuzkoa en el último año.

7.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI ARRETA

2025ean martxan jarri dugu Indarkeria sexualaren arreta integralerako zerbitzua Arrasaten.

Indarkeria matxistaren biktimentzako eta haien seme-alabentzako zentro berria ireki dugu, biktimen parte-hartze aktiboarekin diseinatua. Zentro horrek 24 plaza ditu, aurrekoak baino 5 gehiago, eta egonaldi laburrerako diseinatuta dago, batez beste

7.- ATENCIÓN A LA VIOLENCIA MACHISTA CONTRA LAS MUJERES

En 2025 hemos puesto en marcha el Servicio de atención integral a víctimas de violencia sexual de Arrasate.

Hemos abierto el nuevo centro para víctimas de violencia machista y sus hijos, diseñado con la participación activa de las víctimas. Este centro dispone de 24 plazas, 5 más que el anterior y está diseñado para la corta estancia, con una permanencia media de algo

hilabete baino gehixeagoko egonaldiekin.

8.- BABESGABETASUN EGOERAN DAUDEN ADINGABEAK

Joera-aldaketa bat bizitzen ari gara Gipuzkoara iristen diren familia-erreferenterik gabeko adingabeen migrazio-fluxuetan; Gipuzkoan geratzen diren adingabeen kopurua handiagoa da. Horrek babes-sistema indartzera, baliabideak eta zerbitzuak berrantolatzera eta harrera-gailuak egokitzera behartzen gaitu. Eskaera horri erantzuteko, hilabete batzuetan Orioko aterpetxea egokitu genuen.

Eskaerak gora egiten jarraitzen du arreta-dispositibo guztietan, eta esku hartzeko denborak ere gora egiten du. Haur eta nerabe gehiago artatzen dira, eta denbora gehiagoz, eta horrek zailtasunak dakartza Zerbitzura iristen den eskaera guztia xurgatzeko.

2025ean **1.038** jakinarazpen jaso dira; horietatik 191 adingabe arau-hausleei buruzkoak dira, 293 familia-erreferenterik gabeko adingabeei buruzkoak eta 554 familia-erreferenteak dituzten adingabeei buruzkoak.

Urtean zehar, **372** haur eta nerabe egon dira familia-harreran.

Era berean, **931** haur eta nerabek parte hartu dute familian esku hartzeko programa sozioedukatiboetan eta/edo psikosozialetan.

Era berean, Gazteon Sarelan programarekin lan egiten jarraitu da, zailtasun pertsonal,

más de un mes.

8.- PERSONAS MENORES DE EDAD EN DESPROTECCIÓN

Estamos viviendo un cambio de tendencia en los flujos migratorios de las personas menores de edad sin referentes familiares que llegan a Gipuzkoa; es mayor el número de personas menores que se quedan en el Territorio. Esto nos obliga a reforzar el sistema de protección, reorganizar recursos y servicios y adaptar los dispositivos de acogida. Para dar respuesta a esta demanda, habilitamos durante unos meses el albergue de Orio.

Sigue aumentando la demanda en todos los dispositivos de atención, y también aumenta el tiempo de intervención. Se atienden a más niños, niñas y adolescentes y durante más tiempo, lo cual implica dificultades para absorber toda la demanda que llega al Servicio.

En 2025 se han recibido **1.038** notificaciones, de las cuales, 191 se refieren a personas menores de edad infractoras, 293 a personas menores de edad sin referentes familiares y 554 a persona menores de edad con referentes familiares.

Durante el año, **372** niñas y niños y adolescentes han estado en acogimiento familiar.

Asimismo, **931** niñas, niños y adolescentes, han participado en los diferentes programas de intervención familiar de carácter socioeducativo y /o psicosocial.

Así mismo, se ha continuado el trabajo con el programa Gazteon Sarelan con el objetivo de

familiar eta sozialeko egoeran dauden gazteak helduarora igarotzeko prozesuak hobetzeko, erabat gizarteratu eta laneratu daitezen.

mejorar los procesos de transición a la vida adulta de jóvenes en situaciones de dificultad personal, familiar y social para su plena integración socio laboral.

9.- BERRIKUNTZA ETA EBALUAZIOA

9.- INNOVACION Y EVALUACION

20>30 Agendak 40 jarduera ditu, eta horietatik 24 berrikuntzakoak dira. 34.a, zaintzarako tokiko ekosistemen sustapena da; eta 36.a, gizarte-berrikuntzaren eta kudeaketa aurreratuaren sustapena.

La **Agenda 20>30** cuenta con 40 actuaciones de las cuales 24 son de innovación. La 34 es el fomento de los ecosistemas locales de cuidados y la 36 el fomento de la innovación social y la gestion avanzada.

Gipuzkoak 32 zainketa-ekosistema lokal ditu, garapen-maila desberdinekin, eta Pasaia HerriLab da ibilbiderik luzeena duena.

Gipuzkoa cuenta con 32 ecosistemas locales de cuidados con diferentes grados de desarrollo, siendo Pasaia HerriLab el de mayor recorrido.

Hainbat erakunderen (17) eta udal-ekosistemen (16) **gizarte-berrikuntzako 33 proiektu** finantzatu dira Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan. Proiektu horiek Europako funtsekin finantzatzen dira, **1.899.168 euroko** zenbatekoarekin.

Se ha financiado **33 proyectos de innovación** social de diferentes entidades (17) y ayuntamientos-ecosistemas (16) dentro del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia que se financian con fondos europeos, por un importe de **1.899.168 euros**.

10.- BESTE JARDUERA BATZUK

10.- OTRAS ACTUACIONES

Erakundeen arteko lankidetza. Foru Aldundiak Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan parte hartzen du, eta bere lehentasunak arlo horretan eskumenak dituzten beste erakunde batzuen -bereziki Gipuzkoako udalen- lehentasunekin uztartzen ditu. Lankidetza horren emaitza da **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Erakunde arteko Mahaia**, gizarte zerbitzuen sarearen kohesioa, harmonia eta egituraketa hobetzeko lan egiten duena, sistemaren plangintza bateratuaren eta udalekiko koordinazioaren bidez.

Colaboración interinstitucional. La Diputación enmarca en su actuación el Plan Estratégico de los Servicios Sociales de Euskadi, alineando sus prioridades con las de otras instituciones que tienen competencias en este campo y muy especialmente con los ayuntamientos de Gipuzkoa. Fruto de esta colaboración es la **Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales de Gipuzkoa** que trabaja para mejorar la cohesión, armonía y estructuración de la red de servicios sociales a través de la planificación conjunta del sistema y la coordinación con los ayuntamientos.

Beharren bilakaeraren jarraipena eta gure

Seguimiento de la evolución de las

jarduketaren plangintza. Epe ertaineko proiektuak ditugu, garapen iraunkorra eta sortzen ari diren beharrei egokitzea ahalbidetzen dutenak, kalitatearen hobekuntza zerbitzu eskaintzaren hazkundearekin uztartuta. Legealdi honetako Kudeaketa Plan Estrategikoaren esparruan, Zainketa eta Gizarte Politikako Departamentuak plazak eta zerbitzuak areagotzeko xedea du. 2024-2030 Maparen aurreikuspenaren arabera, **1.553** plaza berri irekiko dira, eta horietatik **% 22** gauzatu dira.

necesidades y planificación de nuestra actuación. Trabajamos con proyectos a medio plazo que permitan un desarrollo sostenible y adecuado a las necesidades emergentes, combinando la mejora de la calidad con el crecimiento de la oferta de servicios. En el marco del Plan Estratégico de Gestión de esta legislatura, el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales está desplegando objetivos concretos de incremento de plazas y servicios. El Mapa 2024-2030 contempla la creación de un total de **1.553** nuevas plazas de las que se han ejecutado el **22%**.

Lurralde oreka zerbitzuen eskaintzan. Oinarrizkotzat jotzen dugu berdintasun irizpidea betetzea lurralde guztian, eta, horretarako, desorekak etengabe murriztuz joateko asmoz planifikatzen dugu gure jarduera. Adinekoentzako eguneko zentroen sarea dugu horren adibide: 2.000 biztanletik gorako ia herri guztietan eskaintzen da zerbitzu hori.

Equilibrio territorial en la oferta de servicios. Consideramos fundamental el objetivo de igualdad de acceso a lo largo de todo el Territorio Histórico y para ello planificamos nuestra actuación en base a la reducción progresiva de desequilibrios. Un ejemplo paradigmático es la red de centros de día para personas mayores, servicio que existe en casi todos los municipios de más de 2.000 habitantes.

Gaur egun **33.773** pertsona ezberdin artatzen ari gara abenduaren 31n, aurreko urtean baino % 2 gehiago.

En la actualidad estamos atendiendo a un total de **33.773** personas diferentes a 31-12, un 2 % más que el año anterior.

Departamentuak egindako inbertsioei dagokienez, **32.744.485** euroko gastua egin dugu guztira.

En lo que respecta al área de inversiones de este Departamento hemos realizado un gasto total de **32.744.485** euros.

Zerbitzuak baimentzeari, kontrolatzeari eta ikuskatzeari dagokionez, erantzukizun publikoa dela eta, arreta berezia jarri diegu alderdi horiei eta, bereziki hitzartutako zerbitzuei. Kontrol horri esker (ekonomia, kalitatea eta erabiltzaileen eskubideak kontuan hartzen dituena) arretaren kalitatea bermatzen da gure erantzukizunpean dauden zerbitzuetan. 2025 urtean **532** ikuskapen egin ditugu.

En cuanto a la **autorización, control e inspección** de los servicios, la responsabilidad pública exige una atención especial a estos aspectos y muy especialmente a los servicios contratados o convenidos. Gracias a este control (económico, de calidad, de derechos de las personas usuarias), se garantiza la calidad de la atención en servicios bajo nuestra responsabilidad. En 2025 hemos realizado **532** inspecciones a centros.

Horiek guztiak Memoria honetan azaltzen ditugun gaietako batzuk baino ez dira. Espero dugu Memoria hau Gipuzkoako ongizatean eta kohesioan interesatuta dauden pertsona guztientzat baliagarri izatea, hori baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoaren helburu estrategikoetako bat. Honen osagarri, Behagi Gipuzkoako Gizarte Behatokiaren web orrira jo dezakezue.

Donostia-San Sebastián, 2025eko martxoaren 31n.

Estas son sólo algunas de las materias sobre las que ofrecemos información en esta Memoria que esperamos sea de utilidad a todas las personas interesadas en la mejora del bienestar y la cohesión social en Gipuzkoa, que es uno de los Objetivos Estratégicos del vigente Plan Estratégico de Gestión de la Diputación Foral. Como complemento a la misma, recomendamos la consulta de Behagi, el Observatorio social de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 31 de marzo de 2025.

Maite Peña Lopez
Diputada de Cuidados y Políticas Sociales
Zainketa eta Gizarte Politiketako Foru Diputatua

INDIZEA

1.- SARRERA 20

1.1.- Xedea, ikuspegia eta baloreak 20

1.2.- Egitura eta funtzioak 23

1.3.- Organigrama 25

1.4.- Aurrekontua 26

2.- ERABILTZAILEEI ARRETA 27

2.1. Arretari buruzko datu globalak 27

2.2 Esparruaren araberako azterketa 32

2.2.1.- MENDEKOTASUNA 32

2.2.1.A.-Adinekoentzako egoitza zentroak 32

2.2.1.B.- Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak 34

2.2.2.- ARRETA SOZIOSANITARIOA 37

2.2.2.A.- Koordinazio soziosanitarioaren garapena 37

2.2.3.- DESGAITASUNA 41

2.2.3.A.- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak 41

2.2.3.B.- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa 41

2.2.4.- GAIXOTASUN MENTALA 43

2.2.4.A.- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza zentroak 43

2.2.4.B.- Buru-nahaste larria duten errehabilitazio psikosozialeko zentroak 43

2.2.4.C.- Laguntza psikosozial komunitarioko programa 44

2.2.5.- MENDEKOTASUNA, DESGAITASUNA ETA GAIXOTASUN MENTALAREN ESPARRUAN ESKAINITAKO ZERBITZUAK 47

2.2.5.1.- Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratu eta diagnostikatzeko zerbitzua 47

2.2.5.2.- Etxez-etxeko laguntza zerbitzua 54

2.2.5.3.- Atsedenerako zerbitzua 56

2.2.5.4.- Laguntza teknikoak emateko zerbitzua 58

2.2.5.5.- Sendian Programa 61

2.2.5.6.- Arreta Goiztiar Zerbitzua 62

2.2.5.7.- Bizimodu independentea babesteko zerbitzua 63

2.2.5.8.- Bizimodu independentea babesteko programa 64

2.2.5.9.- Erabakiz proiektua 64

2.2.5.10.- Gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza neurriak 66

2.2.5.11.- Hondartza Denontzat Programa 67

2.2.6.- HAURREN ETA NERABEEN BABESEKO ZERBITZUA 69

2.2.6.1.- Haurren babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua 69

2.2.6.2.- Adingabeentzako egoitza-harrerako zerbitzuak 72

2.2.6.3.- Adingabeentzako eguneko zentroak 75

2.2.6.4.- Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua 76

2.2.6.5.- Aldi baterako egonaldiak 78

2.2.6.6.- Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua 78

2.2.6.7.- Familiekin gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak 80

2.2.7.- GIZARTERATZEA 83

2.2.7.1.- Bazterkeria eta marginazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak eta etxebizitzak 84

2.2.7.2.- Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroa 87

2.2.7.3.-Zentro okupazionalak 88

2.2.7.4.- Laguntza espezializatuaren programa ... 89
2.2.7.5.- Enplegagarritasun-programak ... 90
2.2.7.6.- Gizarteratzeko beste programak ... 93
2.2.8.- INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK ... 94
2.2.8.1.- URRATS berehalako harrera zentroa ... 94
2.2.8.2.- BIDATZ harrera zentroa eta ABIAN etxebizitzak (egonaldi ertaina) ... 95
2.2.8.3.- Haurtxoak eta Itsas Etxea ... 96
2.2.8.4.- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren pertsonei laguntza soziojuridikoa eta psikosoziala emateko zerbitzuak ... 96
2.2.8.5.- Indarkeria sexualaren arreta integralerako zerbitzua, Hariberria ... 97
2.2.8.6.- Nerabe programa ... 97
2.2.9.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO FORU ZERBITZUA ... 99
2.2.10.- PRESTAZIO EKONOMIKOAK ... 100
2.2.10.1.- Mendekotasunari buruzko 39/2006 legearen ondoriozko prestazioak ... 100
2.2.10.2.- Kotizatu Gabekoen Pentsioa-KGP ... 106
2.2.10.3.- Ezinduak Gizarteratzeko Legearen Prestazioa ... 107
2.2.10.4.- Gizarte Ongizateko Funtsaren Pentsioak ... 108
2.2.10.5.- Gizarteratzeko diru laguntzak ... 110
2.2.10.6.- Haurren eta nerabeen babeseko zerbitzuaren laguntza ekonomikoak ... 111

3.- ZENTROEN KUDEAKETA INTEGRALA ... 113

3.1.- 2025ean egindako jarduerak ... 113

3.2.- Zentro propioak ... 119

3.3.- Erakunde autonomoak ... 120

4.- ZEHARKAKO ZERBITZUAK ... 123

4.1.- Idazkaritza Teknikoa ... 123
4.1.1.- Lizitazioak ... 123
4.1.2.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ... 130
4.1.3.- Datu pertsonalak babestearen arloko eskubideak ... 130
4.1.4.- Jendearen arretarako bulegoa ... 130
4.1.5.- Telefono bidezko informazio zerbitzua ... 132
4.1.6.- Kontsultak, kexak eta iradokizunak ... 133
4.1.7.- Familia ugarien tituloak ... 134
4.1.8.- Ziurtagiriak ... 135
4.1.9.- Sarrera eta irteera erregistroak ... 135
4.1.10.- Gizarte Zerbitzuetako Foru Erregistroa ... 135

4.2.- Gizarte Ekimena ... 136

4.3.- Kudeaketa ekonomikoa ... 140

4.4.- Ikuskapena ... 141

4.5.- Inbertsioak ... 144

4.6.- Agenda, Berrikuntza eta Ebaluaketa ... 147
4.6.1.- Zainketa eta Gizarte Politiken Agenda 2030 ... 147
4.6.2.- Berrikuntza sozialaren proiektuak ... 150
4.6.3.- Elkarrizketa Zibilerako Mahiaren deialdiaK ... 152
4.6.4.- Zaintzaileentzako prestakuntza ... 153
4.6.5.- Ebaluaketa ... 154
4.6.6.- Zaintza Herri Lab Tokiko Zaintza Ekosistemak Bultzatzeko Estrategiaren emaitzak eta inpaktuak ... 155

4.6.7.- Sariak eta aintzatespenak 158
4.7.- Ezagutzaren kudeaketa 160
4.8.- Informazio estatistikoa 163
5.- 2025ean ONARTUTAKO ARAUAK 164
Eranskina 167

ÍNDICE

1.- INTRODUCCIÓN 20

1.1.- Misión, visión y valores 20

1.2.- Estructura y funciones 23

1.3.- Organigrama 25

1.4.- Presupuesto 26

2.- ATENCIÓN A PERSONAS USUARIAS 27

2.1 Datos de atención globales 27

2.2 Análisis por ámbito de actuación 32

2.2.1.- DEPENDENCIA 32

2.2.1.A.- Centros residenciales para personas mayores 32

2.2.1.B.- Centros de día para personas mayores en situación de dependencia 34

2.2.2.- ATENCIÓN SOCIOSANITARIA 37

2.2.2.A.-Desarrollo de la coordinación sociosanitaria 37

2.2.3.- DISCAPACIDAD 41

2.2.3.A.- Centros residenciales para personas con discapacidad 41

2.2.3.B.- Centros de día para personas con discapacidad 41

2.2.4.- ENFERMEDAD MENTAL 43

2.2.4.A.- Centros residenciales para personas con enfermedad mental 43

2.2.4.B.- Centros de rehabilitación psicosocial para personas con Trastorno Mental Severo 43

2.2.4.C.- Programa de apoyo psicosocial comunitario 44

2.2.5.- SERVICIOS Y PROGRAMAS PRESTADOS EN EL ÁMBITO DE LA DEPENDENCIA, LA DISCAPACIDAD Y LA ENFERMEDAD MENTAL 47

2.2.5.1.- Servicio de valoración y diagnóstico de la dependencia y la discapacidad 47

2.2.5.2.- Servicio de ayuda a domicilio 54

2.2.5.3.- Servicio de respiro 56

2.2.5.4.- Servicio de ayudas técnicas 58

2.2.5.5.- Programa Sendian 61

2.2.5.6.- Servicio de atención temprana 62

2.2.5.7.- Servicio de apoyo a la vida independiente 63

2.2.5.8.- Programa de apoyo a la vida independiente 64

2.2.5.9.- Proyecto Erabakiz 64

2.2.5.10.- Medidas de apoyo para el ejercicio de la capacidad jurídica 66

2.2.5.11.- Programa Hondartza Denontzat 67

2.2.6.- PROTECCIÓN A LA INFANCIA Y A LA ADOLESCENCIA 69

2.2.6.1.- Servicio de valoración y diagnóstico de la desprotección infantil 69

2.2.6.2.- Servicios de acogimiento residencial para personas menores de edad 72

2.2.6.3.- Centros de día para personas menores de edad 75

2.2.6.4.- Servicio de promoción y apoyo técnico al acogimiento familiar 76

2.2.6.5.- Estancias temporales 78

2.2.6.6.- Servicio de promoción y apoyo técnico a la adopción 78

2.2.6.7.- Servicio de intervención socioeducativa y psicosocial con familias 80

2.2.7.- INCLUSIÓN 83

2.2.7.1.- Centros residenciales y viviendas para personas en situación de exclusión y marginación 84

2.2.7.2.- Centro de día para atender necesidades de inclusión social 87

2.2.7.3.- Centros ocupacionales 88

2.2.7.4.- Programa de acompañamiento especializado 89

2.2.7.5.- Programas de empleabilidad 90

2.2.7.6.- Otros programas de Inclusión 93
2.2.8.- MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA 94
2.2.8.1.- Centro de acogida inmediata URRATS. 94
2.2.8.2.- Centro de acogida BIDATZ y viviendas ABIAN (media estancia) 95
2.2.8.3.- Haurtxoak e Itsas Etxea 96
2.2.8.4.- Servicio de atención sociojurídica y psicosocial dirigido a las víctimas de maltrato o de actos contra la libertad sexual 96
2.2.8.5.- Servicio de atención integral a víctimas de violencia sexual, Hariberria 97
2.2.8.6.- Programa Nerabe 97
2.2.9.- SERVICIO DE COORDINACIÓN A URGENCIAS SOCIALES 99
2.2.10.- PRESTACIONES ECONÓMICAS 100
2.2.10.1.- Prestaciones económicas derivadas de la ley 39/2006, de dependencia 100
2.2.10.2.- Pensión No Contributiva 106
2.2.10.3.- Prestaciones de la ley de integración social de personas con minusvalía 107
2.2.10.4.- Pensiones del Fondo de Bienestar Social 108
2.2.10.5.- Ayudas económicas de inclusión social 110
2.2.10.6.- Ayudas económicas del servicio de protección a la infancia y la adolescencia 111

3.- GESTION INTEGRAL DE CENTROS 113

3.1.- Actividades desarrolladas en 2025 113

3.2.- Centros propios 119

3.3.- Organismos autónomos 120

4.- SERVICIOS TRANSVERSALES 123

4.1.- Secretaría Técnica 123
4.1.1.- Licitaciones 123
4.1.2.- Derecho de acceso a la información pública 130
4.1.3.- Derechos en materia de protección de datos de carácter personal 130
4.1.4.- Oficina de atención al público 130
4.1.5.- Servicio de información telefónica 132
4.1.6.- Consultas, quejas y sugerencias 133
4.1.7.- Títulos de familia numerosa 134
4.1.8.- Certificados 135
4.1.9.- Registros de Entrada y Salida 135
4.1.10.- Registro Foral de Servicios Sociales 135

4.2.- Iniciativa social 136

4.3.- Gestión económica 140

4.4.- Inspección 141

4.5.- Inversiones 144

4.6.- Agenda, Innovación y Evaluación 147
4.6.1.- Agenda 2030 de Cuidados y Políticas Sociales 147
4.6.2.- Proyectos de innovación social 150
4.6.3.- Convocatorias de la Mesa de Diálogo Civil 152
4.6.4.- Formación a personas cuidadoras 153
4.6.5.- Evaluación 154
4.6.6.- Resultados e impactos de la Estrategia de Impulso de los Ecosistemas Locales de Cuidados Zaintza Herri Lab 155
4.6.7.- Premios y reconocimientos 158

4.7. Gestión del conocimiento 160

4.8.- Información estadística..... 163

5.- NORMATIVA APROBADA EN 2025 164

Anexo 168

1.- SARRERA

1.1.- Xedea, ikuspegia eta baloreak

Gure **xedea** da Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizun publikoa betetzea, hau da, gizarte zerbitzuen sistemako eskumenen esparruan herritarren eskubideak bermatzea, beste gizarte eragileekin elkarlanean, Gipuzkoako pertsonen bizi baldintzak eta kohesio soziala hobetzen laguntzeko.

Departamentuaren **ikuspegia** honako hau da:

- Udalekin, hirugarren sektoreko entitateekin, bestelako administrazio publikoekin eta bestelako laguntzaileekin, Gipuzkoan gizarte zerbitzu sare integratu eta partekatua eraikitzeko prozesua sustatzen duen erakundea izatea, eta bere jarduerari esker, Gipuzkoako sare soziala, solidaritatea eta kohesio soziala indartzea.

- Erabiltzaileen bizi kalitatean eta ongizatean eragin positiboa duten zerbitzu eta gizarte laguntzak ematen dituen erakundea izatea, eta prestazio horien aurrean, Gipuzkoako herritar guztiak harro sentitzea.

- Artatutako pertsonen bizi-kalitatea sustatzera bideratutako arreta-eredu bat definitu duen erakundea izatea. Eredu hori, besteak beste, honako printzipio hauetan oinarrituko da:

1.- INTRODUCCIÓN

1.1.- Misión, visión y valores

Es nuestra **misión** cumplir con la responsabilidad pública de la Diputación Foral de Gipuzkoa de garantizar los derechos de la ciudadanía, dentro del marco competencial del sistema de servicios sociales, para contribuir a la mejora de las condiciones de vida de las personas y a la cohesión social en Gipuzkoa, desarrollando esta labor en colaboración con otros agentes sociales.

La **visión** del Departamento es:

- Ser una institución que, junto a los ayuntamientos, organizaciones del tercer sector, otras administraciones públicas y otros colaboradores, promueve la construcción de una red integrada y compartida de servicios sociales en el territorio, y que, con su actuación, refuerza el tejido social, la solidaridad y la cohesión social en Gipuzkoa.

- Ser una institución que consiga que los servicios y ayudas sociales que facilita tengan resultados en la calidad de vida y el bienestar de las personas usuarias, y sean motivo de satisfacción para el conjunto de la ciudadanía de Gipuzkoa.

- Ser una institución que ha definido un modelo de atención orientado a promover la calidad de vida de las personas atendidas, que esté basado, entre otros, en los siguientes principios:

- Pertsonalizazioa
- Osotasuna
- Pertsona bere harreman sarearekin batera tratatzea
- Gertutasuna
- Jarraitasuna
- Akonpainamendua
- Onuradunen erantzukizuna

- Autonomiaren sustapena
- Eskubideen ikuspegia
- Plangintza
- Aurrea hartzea eta prebentzioa

- Bere ikuspegia betetzeko kudeaketa ezartzen duen erakundea izatea; horretarako, abian jarritako jarduerek, artatutako eta lagundutako pertsonen bizi kalitatean eta asebetetzean dituzten ondorioak neurtu eta aztertzen ditu.

- Aurreko guztia, artatzen ditugun pertsonen eta gizarte-arretako sarea osatzen dugun administrazio eta erakundeetako langileen parte-hartzearekin egiten duen erakundea izatea.

- Personalización
- Integralidad
- Abordaje de la persona junto con su red relacional
- Proximidad
- Continuidad
- Acompañamiento
- Responsabilidad de las personas destinatarias

- Promoción de la autonomía
- Enfoque de derechos
- Planificación
- Anticipación y prevención

- Ser una institución con una gestión orientada al cumplimiento de su visión, que mide y conoce los resultados de sus actuaciones en la mejora de la calidad de vida y en la satisfacción de las personas a las que acompaña y atiende.

- Ser una institución que hace todo lo anterior con la participación de las personas a quienes atendemos y de las personas trabajadoras de las diversas administraciones y organizaciones que conformamos nuestra red de atención social.

Baloreak:

- Erantzukizun publikoa
- Gardentasuna
- Pertsonei orientatua
- Pertsona eta kolektiboen erantzukizuna, autonomia eta jabekuntza.
- Pertsonalizazioa
- Gertutasuna
- Partaidetza
- Emakumeen eta gizonen arteko

Valores:

- Responsabilidad pública
- Transparencia
- Orientación hacia las personas
- Responsabilidad, autonomía, empoderamiento de personas y colectivos
- Personalización
- Proximidad
- Participación
- Igualdad entre mujeres y hombres

berdintasuna
- Justizia soziala
- Ehun sozial eta komunitarioa indartzea

- Justicia social
- Fortalecimiento del tejido social y comunitario

1.2.- Egitura eta funtzioak

2023ko uztailaren 30eko 4/2023 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzen dituenak dio, eginkizun esparru eta funtzio hauek dagozkiola Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuari:

- Mendekotasuna dutenentzako arreta.
- Gizarte zerbitzu komunitarioak.
- Asistentzia zentro propioak nahiz hitzartuak.
- Desgaitasuna.
- Enplegu politikak aktiboak.
- Ekintza komunitarioa eta gizarte-inklusioa.
- Adingabe babesgabeak.
- Adopzioak.
- Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak erabiltzea.

Departamentu honi atxikitzen zaizkio Uliazpi Fundazioa eta Kabia foru organismo autonomoak eta Adinberri Fundazioa.

Esleituta dituen funtzioak garatzeko, Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak, zerbitzuen prestazioa antolatzeko bi modu ditu: bai zuzenean baliabide propioak erabiliz, bai ekimen pribatuarekin lankidetzan, hain zuzen ere 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, V. tituluan xedatutako formulen arabera.

1.2.- Estructura y funciones

El Decreto Foral 4/2023, de 30 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus áreas de actuación y funciones establece que al Departamento de Cuidados y Políticas Sociales le corresponden las siguientes áreas de actuación y funciones:

- Atención a la dependencia.
- Servicios sociales comunitarios.
- Centros asistenciales propios o concertados.
- Discapacidad.
- Políticas activas de empleo.
- Acción comunitaria e inclusión social.
- Menores de edad en desprotección.
- Adopciones.
- Las demás facultades que se le atribuyan por la normativa aplicable.

Se adscriben a este departamento los organismos autónomos forales Fundación Uliazpi y Kabia y la Fundación Adinberri.

En el desarrollo de las funciones que tiene encomendadas, el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales organiza la prestación de los servicios bien directamente, a través de sus propios medios, bien con la colaboración de la iniciativa privada mediante fórmulas de relación previstas en el título V de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren **egiturari** dagokionez, Foru Diputatua da departamentua zuzendu eta antolatzeko burua. Foru Diputatu hori da Departamentuko organo gorena, baita Diputatuen Kontseiluko kidea ere.

Departamentuari esleitutako funtzioak betetzeko 5 zuzendaritza nagusi, 2 foru organismo autonomo (Uliazpi Fundazioa eta Kabia), fundazio publiko bat (Adinberri) eta 6 zerbitzu sortu dira.

En cuanto a la **estructura** del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales, ésta se organiza bajo la dirección y organización de la Diputada Foral que, además de miembro del Consejo de Gobierno Foral, constituye el órgano superior del Departamento.

Para el cumplimiento de las funciones atribuidas se crean 5 direcciones generales, 2 organismos autónomos (Fundación Uliazpi y Kabia), una fundación pública (Adinberri) y 6 servicios.

1.3.- Organigrama



1.4.- Aurrekontua

1.4.- Presupuesto

T. 1.- Aurrekontua / Presupuesto

2025eko Aurrekontua / Presupuesto 2025					
Programa		**Hasierakoa/ Inicial**	**Behin betikoa/ Definitivo**	**Exekuzioa/ Ejecución**	**%**
10	*Zerbitzu orokorrak* / Servicios Generales	2.995.988	3.001.523	2.966.875	98,8%
100	Agenda, berrikuntza eta ebaluazioa / Agenda, innovación y evaluación	9.781.408	10.540.371	10.205.952	96,8%
200	*Desgaituentzako arreta* / Atención a personas con discapacidad	75.629.404	82.314.694	82.030.240	99,7%
210	*Adineko pertsonentzako arreta* / Atención a personas mayores	121.098.739	128.693.253	128.534.332	99,9%
300 +320	*Prestazio ekonomikoak, plangintza eta itunak* / Prestaciones económicas, planificación y concertación	97.507.704	112.874.071	112.436.221	99,6%
310	*Inbertsio plana* / Plan de Inversiones	37.128.708	35.500.681	32.880.110	92,6%
400	*Gizarteratzea eta indarkeria matxistaren emakume biktimen arreta* / Inserc. Social y At. a Mujeres Víctimas de Viol. Machista	44.838.777	47.909.666	47.622.902	99,4%
410	*Haurren eta nerabeen babesa* /Protección a la Infancia y a la Adolescencia	64.681.125	78.323.164	78.110.803	99,7%
500	*Foru Erakunde publikoen kudeaketa* / Gestión de Organismos públicos forales	80.973.538	78.064.371	77.938.709	99,8%
Guztira /Total		**534.635.391**	**577.221.792**	**572.726.145**	**99,2%**

G. 1.- Likidatutako aurrekontua / Presupuesto liquidado



2.- ERABILTZAILEEI ARRETA

2.1. Arretari buruzko datu globalak

Ondoko grafikoan zentroetan zein zerbitzuen bidez arreta jaso duten pertsona kopurua agertzen da, baita prestazio ekonomikoen hartzaile kopurua ere.

2.- ATENCIÓN A PERSONAS USUARIAS

2.1 Datos de atención globales

El siguiente gráfico muestra el número de personas atendidas, tanto en centros como mediante servicios, así como el número de personas beneficiarias de prestaciones económicas.

G. 2.-Arretari buruzko datu globalak. Urtean artatutako pertsonak / Datos globales de atención. Personas atendidas en el año



Guztira **39.446** pertsonei eman zaie arreta. 2025eko abenduan **33.773** pertsona artatu ziren eta horietatik **%59** emakumeak dira.

El total de personas diferentes atendidas en el año es de **39.446.** En diciembre de 2025 se atendía a **33.773** personas, de las cuales el **59%** son mujeres.

2016-2025 epean zehar arreta emandako pertsona kopuruaren bilakaera hurrengo grafikoan ageri da:

En el siguiente gráfico se muestra la evolución del número de personas atendidas en el período 2016-2025:

G. 3.- Arretari buruzko datu globalak. Urteko bilakaera / Datos globales de atención. Evolución anual



Zentro mota ezberdinetan artatutako pertsonak aztertzeko, baliabideetako arretan egon den bilakaera ikus daiteke ondoko grafikoetan.

Analizando las personas atendidas en los distintos tipos de centros, podemos observar la evolución de la atención de los recursos en los siguientes gráficos.

G. 4.-Adinekoen baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas atendidas en recursos para personas mayores (12-31)



G. 5.- Baliabide soziosanitarioetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas atendidas en centros residenciales sociosanitarios (12-31)



G. 6.- Desgaitasuneko baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas atendidas en recursos para personas con discapacidad (12-31)



G. 7.- Gaixotasun mentaleko baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas atendidas en recursos para personas con trastorno mental (12-31)



G. 8.- Adingabeen baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas menores atendidas (12-31)



G. 9.- Gizarteratzeko baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas atendidas en recursos de inclusión (12-31)



Halaber, 2025ean, **22.706** pertsona baloratu ziren mendekotasunaren, desgaitasunaren eta plaza-orientazioan, 2024an baino % 4 gehiago.

Asimismo, durante el año 2025 fueron valoradas de dependencia, discapacidad y de valoración de orientación de plaza un total de **22.706** personas, un 4% más que en 2024.

Plaza berrien sorreraren inguruan:

En cuanto a la **creación nuevas de plazas**:

2024 urtean zehar, egiturazko **219** plaza berri hitzartu dira. Zehazki, plaza horiek honela banatu dira (plaza berriak):

A lo largo del 2025 se han concertado **219** plazas estructurales de acuerdo a la siguiente distribución (plazas nuevas):

G. 10.- Baliabide ezberdinetako plaza berriak / Nuevas plazas en distintos recursos



Adinekoentzako egoitzetan 50 plaza berri itundu ditugu: Iturbide Arrasaten (14), San Juan de Dios Arrasaten (5), Donostian, Ballesol (14), Bermingham (1), Berra (3), Lamorous (2) eta San Ignacio (2); Eibarrren, Egogain (12) eta Hernanin, Santa Maria Magdalena (2).

En las **residencias para personas mayores**, hemos concertado **50** nuevas plazas: Iturbide en Arrasate (14), en Donostia, Ballesol (14), Bermingham (1), Berra (3), Lamorous (2) y San Ignacio (2); en Eibar, Egogain (12) y en Hernani, Santa Maria Magdalena (2).

7 plaza kendu ditugu: Donostian, La Paz (1) eta Villa Herminia (4) eta Lasarten, Atsobakar (2).

Hemos suprimido **7** plazas: en Donostia, La Paz (1) y Villa Herminia (4) y en Lasarte, Atsobakar (2).

Adinekoentzako eguneko zentroetan 43 plaza itundu ditugu guztira, eta 2 kendu ditugu.

En los **centros de día para personas mayores** hemos concertado en total 43 plazas y se han

Azkoitian, Garbiñe Otegi zentroa ireki dugu, eta, Donostian, Cita Go On proiektuaren barruan, Alzheimerra duten pertsonentzako zentro bat.

suprimido 2. En Azkoitia, hemos abierto el centro Garbiñe Otegi y en Donostia un centro dentro del proyecto Cita Go On para personas con Alzheimer.

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan eta etxebizitzetan 22 plaza itundu ditugu guztira, eta 18 kendu ditugu. Nabarmentzekoa da Pagoeta zentroa ireki zela Urretxun, 10 plazarekin.

En las **residencias y viviendas para personas con discapacidad** hemos concertado en total 22 plazas y hemos suprimido 18. Cabe destacar la apertura del centro Pagoeta en Urretxu, con 10 plazas.

Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetan 41 plaza itundu ditugu, eta **32** kendu.

En los centros de día para personas con discapacidad hemos concertado **41** plazas y suprimido **32**.

Gizarteratzeko bizitokietan, **42** plaza itundu ditugu, eta **25** kendu.

En los **alojamientos de inserción**, hemos concertado **42** plazas y suprimido **25**.

Gizarteratzeko eguneko zentroetan, Gureak kudeatutako baliabide bat ireki dugu Donostian, 30 plazarekin, eta Zarautzen, berriz, 10 plaza gehitu ditugu Emausek kudeatutako zentroan.

En los **centros de día de inserción**, hemos abierto un recurso gestionado por Gureak en Donostia, con 30 plazas, y en Zarautz hemos incrementado 10 plazas en el centro gestionado por Emaus.

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen arretaren esparruan, Orioko Txurruka zentroa, 28 plaza dituena, egokitu da, familia-erreferenterik gabeko adingabe migratzaileen hazkundeari erantzuteko. Era berean, emantzipazio-zentro bat jarri da martxan Donostian, 32 plazarekin, eta hiru emantzipazio-etxebizitzarekin: bi Donostian, 9 eta 5 plazarekin, hurrenez hurren, eta bat Errenterian, 4 plazarekin. Bestalde, larrialdiko harrera-zentro bat itxi da Donostian, 20 plazakoa.

En el ámbito de la atención a **personas menores de edad en situación de desprotección**, se ha habilitado el centro Txurruka de Orio, con una capacidad de 28 plazas, para dar respuesta al incremento de menores migrantes sin referentes familiares. Asimismo, se ha puesto en marcha un centro de emancipación en Donostia con 32 plazas, además de tres pisos de emancipación: dos en Donostia, con 9 y 5 plazas respectivamente, y uno en Errenteria, con 4 plazas. Por otro lado, se ha cerrado un centro de acogida de urgencia en Donostia, de 20 plazas.

Gizarte ekimenerako laguntzen bidez, irabazte asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak eman zaizkie, guztira **368** programa egiteko, esparru hauetan:esku-hartze soziala, prebentzio eta sentsibilizazio programak, ikerketa eta berrikuntza proiektuak.

A través de las **ayudas a la iniciativa social** se han concedido subvenciones a entidades guipuzcoanas sin ánimo de lucro para la realización de **368** programas de intervención social, prevención y sensibilización, y proyectos de investigación e innovación.

2.2 Esparruaren araberako azterketa

2.2.1.- MENDEKOTASUNA

2.2.1.A.-Adinekoentzako egoitza zentroak

Adinekoentzako egoitza zentroak, ohiko etxebizitza edo behin betiko etxebizitza gisa erabiltzen diren zentroak dira; dena dela, batzuetan behin-behineko zentro gisa ere erabiltzen dira, hain zuzen ere, 2 eta 3. graduko mendekotasuna duten adineko pertsonentzat (eta salbuespen gisa 1. gradukoentzat). Egoera horretan dauden pertsonek ezin dituzte beren ohiko ingurunean edo bestelako egoitza-aukera arinagoetan beren premiak behar bezala bete, laguntza maila handiagoa behar baitute, eta horrelako zentroetan arreta osoa eta etengabekoa ematen zaie.

2025. urtean zehar, Txara 1 egoitzaren obra dela eta, oinarrizko 105 plaza eta UPSIko 15 plaza kendu dira.

Alternatiba gisa, eta Zizurkilgo Fraisoro egoitza berritzeko obra amaitu ondoren, baimendutako 88 plazak hitzartu dira: 64 oinarrizko plaza eta 24 UPSI plaza (12 plazako bi modulu).

Gainera, 2025eko irailean deialdi publiko bat egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoko adinekoentzako egoitza-zentroetan plaza berriak ituntzeko. Plaza horiek Donostiako Txara 1 egoitzan obrengatik egin beharreko lekualdatzearen ondoriozkoak dira, eta honako plaza hauek hitzartu dira: Ballesol Easo 14 plaza, San Ignacio Klinika Egoitza 2 plaza, Berra Egoitza 2 plaza, Bermingham Egoitza 1 plaza, Lamourous Egoitza 2 plaza.

2.2 Análisis por ámbito de actuación

2.2.1.- DEPENDENCIA

2.2.1.A.- Centros residenciales para personas mayores

Los centros residenciales para personas mayores son centros destinados a servir de vivienda habitual o permanente, y, en su caso, temporal, a personas mayores en situación de dependencia en grados 2 y 3 (y excepcionalmente en grado 1), que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su entorno habitual, o en alternativas de alojamiento de carácter más ligero, por requerir apoyos de mayor intensidad, ofreciéndose en estos centros una atención integral y continua.

Durante el año 2025 con motivo de la obra de la Residencia Txara 1, se han suprimido 105 plazas básicas y 15 plazas UPSI.

Como alternativa y tras finalizar la obra de renovación de la residencia Fraisoro de Zizurkil, se han concertado las 88 plazas autorizadas en la misma: 64 plazas básicas y 24 plazas UPSI (dos módulos de 12 plazas).

Además, en septiembre del 2025 se ha realizado una convocatoria pública para la concertación social de nuevas plazas en centros residenciales para personas mayores en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, derivada del traslado por obras del centro Txara 1 de San Sebastián, a través de la cual se han concertado las siguientes plazas: Ballesol Easo 14 plazas, Residencia Clínica San Ignacio 2 plazas, Residencia Berra 2 plazas,

Residencia Bermingham 1 plaza, Residencia Lamourous 2 plazas.

2025eko azaroan, 2025eko bigarren deialdia egin da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko adinekoentzako egoitza-zentroetan plaza berriak ituntzeko. 12-31n prozesu hori ez zegoen amaituta.

En noviembre de 2025 se ha realizado segunda convocatoria 2025, para la concertación social de nuevas plazas en centros residenciales para personas mayores en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuyo proceso no ha finalizado a 31-12.

Berrikuntza lanak egin dira hainbat egoitzatan, eta, ondorioz, plazak honela gehitu eta murriztu dira: Arrasateko Iturbide egoitzan, 2025eko azaroan, oinarrizko 14 plazaren ituna handitu zen, 74 plazatik 88ra pasatuz; Azkoitiko San Jose egoitzan, berriz, 3 UPSI plazaren itunketa zabaldu da; Lasarteko Atsobakar egoitzako obren ondorioz, berriz, 2025ean 3 UPSI plaza murriztu dira, eta Donostiako La Paz egoitzan oinarrizko plaza bat murriztu da.

Se han llevado a cabo obras de renovación en varias residencias y como consecuencia las plazas han incrementado y disminuido de la siguiente manera: en la Residencia Iturbide de Arrasate en noviembre de 2025 se amplía la concertación de 14 plazas básicas, pasando de 74 a 88 plazas, en la Residencia San José de Azkoitia se amplía la concertación de 3 plazas UPSI, en cambio debido a las obras en la Residencia Atsobakar de Lasarte, durante el año 2025 se han reducido 3 plazas UPSI; en la Residencia la Paz de Donostia se ha reducido una plaza básica.

Guztira, **adinekoentzako egoitzetan, 50** plaza berri hitzartu ditugu, eta **7** plaza kendu.

En total, en las **residencias para personas mayores**, hemos concertado **50** nuevas plazas y hemos suprimido **7** plazas.

Abenduaren 31n 1.080 zeuden itxarote zerrendan.

A 31/12 había 1.080 personas en lista de espera.

Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitza batera sartzeko itxaron-zerrenda aztertzen badugu, ikusiko dugu bertan dauden pertsonen **% 83**k jasotzen duela arretaren bat. Pertsona horiek hainbat prestazio eta zerbitzu jasotzen dituzte, hala nola mendekotasun-prestazioak, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, eguneko zentroak, baliabide soziosanitarioak edo egoitzetako aldi baterako egonaldiak, besteak beste.

Si analizamos la lista de espera para acceder a una residencia para personas mayores en situación de dependencia, observamos que el **83 %** de las personas incluidas en ella ya reciben algún tipo de atención. Estas personas perciben distintas prestaciones y servicios, como prestaciones de dependencia, servicio de ayuda a domicilio, centros de día, recursos sociosanitarios o estancias temporales en residencias, entre otros.

T. 2.- 12-31n itxarote zerrendan dauden pertsonen arreta / Atención a personas que están en lista de espera a 31-12

12-31n Itxaron zerrendan dauden pertsonak, zerbitzu eta prestazioekin edo gabe / Personas en lista de espera con o sin servicios y prestaciones a 31-12		
Jasotzen duen zerbitzu-prestazioa/ Servicio o prestación que reciben	**Pertsona kopurua/ Núm. personas**	**%**
PECE/PEAP	282	26,1
PEVS	232	21,5
PECE/PEAP/PMCDIA	112	10,4
SOCSAN	53	4,9
SAD	50	4,6
PMCDIA	47	4,4
PECE/PEAP SAD	46	4,3
PECE/PEAP/PMCDIA/ SAD	39	3,6
PMCDIA/SAD	31	2,9
PSETPM	6	0,6
Zerbitzu edo prestaziorik gabe/ Sin servicio o prestación	182	16,9

Gainera, itxarote-zerrendan daudenen % 39k soilik du 3. mailako mendekotasuna, pertsona horiek lehentasuna baitute egoitza-plaza bat eskuratzeko.

Además, únicamente un 39% de las personas que están en lista de espera tiene un grado 3 de dependencia ya que estas personas tienen prioridad para acceder a una plaza residencial.

2.2.1.B.- Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak

2.2.1.B.- Centros de día para personas mayores en situación de dependencia

Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga fisiko eta / edo psikiko garrantzitsuak dituztelako, ohiko ingurunean bere premiak behar bezala betetzeko zailtasunak dituzten pertsonei bideratuta daude.

Los centros de día para personas mayores en situación de dependencia están dirigidos a personas que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su entorno habitual por presentar importantes limitaciones físicas y/o psíquicas para realizar actividades de la vida diaria.

2025ean, Azkoitiko San Jose eguneko zentroa itxi da, adineko egoitzaren ondoan egon dena, eta Garbiñe Otegi eguneko zentro berria ireki da, 30 lanegun eta asteburuko 12 plazako itunarekin. Aldaketaren ondorioz, laneguneko 10 plaza eta asteburuko 12 plaza gehitu dira.

En el 2025 se cierra el centro de día San José de Azkoitia, ubicado junto a la residencia de personas mayores, y se abre el nuevo centro de día Garbiñe Otegi con una concertación de 30 plazas laborables y 12 plazas de fin de semana. Con el cambio, aumentan 10 plazas

de la modalidad laboral y 12 de fin de semana.

Soraluzeko eguneko zentroan 3 plaza gehiago hitzartu ditugu lanegunetan eta 10 plaza asteburuko modalitatean.

En el centro de día de Soraluze hemos ampliado 3 plazas en la modalidad laboral y 10 plazas en modalidad de fin de semana.

2025. urtearen amaieran, FUNDACIÓN CITA ALZHÉIMER FUNDAZIOAREKIN programa-kontratua arautu da, CITA GO-ON eguneko zentroaren zerbitzua hasteko. Proiektu horrek izaera berritzailea du, eredu estandarra hobetzen baitu eta arreta-modalitate berriak garatzen baititu.

A finales del 2025 se regula el contrato programa con la FUNDACIÓN CITA ALZHÉIMER FUNDAZIOA con el objeto de iniciar el servicio de centro de día CITA GO-ON, proyecto que presenta un carácter innovador, ya que introduce mejoras sobre el modelo estándar y desarrolla nuevas modalidades de atención.

Eguneko zentro arrunt batetik bereizten duena da profesional espezializatuak egotea eta prebentzio zerbitzuarekin koordinatutako eredu integral bat izatea. Lanegunetarako 30 plaza eta asteburuko modalitateko 15 plaza hitzartu dira.

Se diferencia de un centro de día convencional por la incorporación de profesionales especializados y un modelo integral coordinado con el servicio de prevención. Se conciertan 30 plazas en la modalidad laboral y 15 plazas en la modalidad de fin de semana.

Bi plaza kendu ditugu Pasaiako San Pedro egoitzan. Guztizko balantzea 41 plazakoa da.

Hemos suprimido dos plazas en el centro San Pedro de Pasaia. El balance total es

T.-3.- Mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroetako arretaren datuak / Datos de atención en residencias y centros de día para personas mayores dependientes

	Egoitza / Residencia		Eguneko. Z / Centro de día	
	2024	2025	2024	2025
Baimendutako plazak / Plazas autorizadas	5.322	5.374	1.894	1.934
Hitzartutako plazak / Plazas concertadas	4.658	4.701	1.600	1.641
Urtean artatutakoak / Atendidas año	5.849	5.878	2.236	2.233
12/ 31 Artatutakoak / Atendidas 31/12	4.582	4.538	1.518	1.542
12/ 31 Artatutakoak Emak. / Atendidas 31/12 Muj.	3.246	3.174	1.108	1.122
12/31 Itxarote zerrenda / Lista de espera 31/12	957	1.080	438	555
Bajaren BB adina / Edad media baja	88,2	88,1	85,6	85,8
Altaren BB adina / Edad media alta	85,2	85,4	84,1	84,1
Egonaldien BB iraupena / Duración media estancias	3,52	3,34	1,74	1,95
Profil orokorra. Okupazioa / Ocupación perfil general	0,98	96,50%		
PSICO. Okupazioa / Ocupación PSICO	0,98	97%		
Profil orokorra. Errotazioa / Rotación. Perfil general	1,28	1,27		
PSICO. Errotazioa / Rotación PSICO	1,35	1,47		
Errotazioa / Rotación			1,4	1,4
Okupazioa / Ocupación			94,9%	96,8%

2.2.2.- ARRETA SOZIOSANITARIOA

Osasun-arazo larriengatik edo muga funtzionalengatik eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuagatik aldi berean osasun- eta gizarte-arreta, koordinatua eta egonkorra, arretaren jarraitutasun-printzipioari egokitua, behar duten pertsonentzako zainketa-multzoa hartzen du arreta soziosanitarioak.

Arlo soziosanitariotik bi esku-hartze ildotan arreta soziosanitario egokia antolatu ahal izateko lan egiten da. Alde batetik, eremu soziosanitarioaren garapenean, koordinaziorako eta baterako lanerako eremu gisa, bai lurralde mailan, bai autonomia mailan, eta, bestetik, baliabide soziosanitarioen kudeaketan egoitza-unitate soziosanitarioak eta Buru-nahaste larria (BNL) duten pertsonei arreta emateko baliabide komunitarioak, bai artatutako biztanleek, bai haietarako irisgarritasunak eraginda.

2.2.2.A.- Koordinazio soziosanitarioaren garapena

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetza-Osasun Sistema Zerbitzuarekin koordinazio soziosanitarioa garatzen ari gara, bai lurralde mailan, bai autonomia mailan.

2.2.2.A.1.- Koordinazio autonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoan, lankidetzan aritu gara eta parte hartu dugu Osasun Sailarekin, Ongizatea Gazteria eta Erronka Demografiko Sailarekin eta Bizkaiko eta Arabako foru-aldundiekin Autonomia erkidegoko"Batzorde Tekniko

2.2.2.- ATENCIÓN SOCIOSANITARIA

La atención Sociosanitaria comprende el conjunto de cuidados destinados a las personas que, por causa de graves problemas de salud o limitaciones funcionales y/o de riesgo de exclusión social, necesitan una atención sanitaria y social simultánea, coordinada y estable, ajustada al principio de continuidad de la atención.

Desde el área sociosanitaria se trabaja para poder articular una atención sociosanitara adecuada en dos líneas de intervención. Por un lado, en el desarrollo del espacio sociosanitario, como espacio de coordinación y trabajo conjunto tanto a nivel Territorial como Autonómico y por otro en la gestión de recursos de carácter sociosanitario, Unidades Residenciales Sociosanitarias (URSS) y recursos comunitarios para la atención a personas con trastorno mental severo (TMS), tanto por la población atendida como por el acceso a los mismos.

2.2.2.A.-Desarrollo de la coordinación sociosanitaria

Trabajamos en el desarrollo de la coordinación Sociosanitaria con el Departamento de Salud del Gobierno Vasco y con Osakidetza-Servicio Vasco de Salud tanto a nivel Territorial como a nivel Autonómico.

2.2.2.A.1.-Coordinación Autonómica

A nivel Autonómico hemos colaborado y participado con el Departamento de Salud, el Departamento de Bienestar Juventud y Reto Demográfico, así como las Diputaciones Forales de Bizkaia y Araba en la “Comisión Técnica Permanente” de

Iraunkorrean", bai eta "2021-2024 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren" garapenean ere, zenbait jardun-arlotan lankidetzan:

- Gobernantza soziosanitarioa
- Gobernantzako dekretua
- Finantzaketa-esparrua
- Elkarreragingarritasun soziosanitarioa
- Osabide egoitzetan
- Prebentzio soziosanitarioa
- Arreta soziosanitarioa
- Xede-kolektiboak
- Arreta goiztiarra

carácter autonómico, así como en el desarrollo de la “Estrategia de atención Sociosanitaria de Euskadi 2021-2024” colaborando en diversas áreas de actuación:

- Gobernanza sociosanitaria
- Desarrollo del Decreto de Gobernanza
- Marco de financiación
- Interoperabilidad Sociosanitaria
- Osabide en residencias
- Prevención Sociosanitaria
- Atención Sociosanitaria
- Colectivos Diana
- Atención Temprana

2.2.2.A.2.- Lurralde Koordinazioa

Lurralde Mailan 2025eko lurralde Kontseilu Soziosanitarioan hurrengo urtetan landuko den 2025-2028 Plan Operatibo Soziosanitarioa onartu da.
2022an Gobernantzari buruzko Dekretu Berria onartu ondoren, 2025ean hitzarmen horretan jasotako koordinazio-egiturak aktibo mantendu dira, aurretik zeuden egiturekiko jarraipen gisa, bai Lurralde Kontseilu Soziosanitarioarekiko, bai Eskualdeko Kontseilu Soziosanitarioekiko. Azken horiek sei osasun-eskualdeei dagozkie, eta gutxienez bi bilera egin dira eskualde bakoitzeko.

Kasuak kudeatzeko Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordean, aztertutako kasuen bolumena eta konplexutasuna

2.2.2.A.2.- Coordinación Territorial

A nivel Territorial, en el Consejo Territorial Sociosanitario del 2025 se ha aprobado el Plan Operativo Sociosanitario 2025-2028, a desarrollar durante los siguientes años.
Tras la aprobación del Nuevo Decreto de Gobernanza en el año 2022, durante el año 2025 se han mantenido activas las estructuras de coordinación recogidas en dicho convenio, con un carácter de continuidad respecto a las estructuras previamente existentes, tanto el Consejo Territorial Sociosanitario como los Consejos Sociosanitarios Comarcales. Estos últimos se corresponden a las seis Comarcas de Salud y se han realizado un mínimo de dos reuniones por Comarca.

En la Comisión de Valoración y Orientación Sociosanitaria de gestión de casos, dado el volumen y la complejidad de los casos

kontuan hartuta, bi batzorde bereizi izan dira 2025ean:

1.- Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordea, astean behin egoitza-unitate soziosanitarioak plazak eskuratzeko. 2025ean **348** eskaera berri aztertu ditu.

2.- Balorazio eta orientazio soziosanitarioko batzordea, hamabostean behin nahasmendu mental larria duten pertsonentzako plazak eskuratzeko. 2025ean **107** eskaera aztertu ditu guztira.

analizados, durante el año 2025 se han mantenido dos comisiones diferenciadas:

1.- La Comisión de valoración y orientación sociosanitaria para acceso a plazas de las unidades residenciales sociosanitarias con periodicidad semanal. Ha analizado durante el año 2025 un total de **348** nuevas solicitudes.

2.- La Comisión de valoración y orientación sociosanitaria para acceder a plazas para personas con trastorno mental severo con periodicidad quincenal. Durante el año 2025 ha analizado un total de **107** solicitudes.

2.2.2.B.1.- Egoitza-zentro soziosanitarioak, EUS.

Egoitza soziosanitarioetan osasun eta gizarte arloko arreta handia eskaintzen zaie pertsonei, aldi berekoa, koordinatua eta egonkorra.

Guztira, **148** plaza hitzartuta daude. Hiru zentrotan banatuta daude: Gurutz Gorria (Donostia), Argixao (Zumarraga) eta Torrekua (Eibar).

SESBeko egoitza-unitate soziosanitarioko plazen kudeaketari dagokionez, 2025ean **450** kasu soziosanitario landu dira atal soziosanitariotik. **348** eskaera iritsi dira Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordera, eta horrek **265** sarrera eragin ditu.

Abenduaren 31n, **14** pertsona zeuden egoiza hauetarako itxarote zerrendan.

Urtean zehar **396** pertsona artatu ziren.

2.2.2.B.1.- Centros residenciales sociosanitarios, URSS.

Los centros residenciales sociosanitarios son centros destinados a personas que precisan una atención sanitaria y social intensa, simultánea, coordinada y estable.

El total de plazas concertadas es de **148**, repartidas en tres centros: Cruz Roja (Donostia), Argixao (Zumarraga) y Torrekua (Eibar).

En lo referente a gestión de plazas de unidad residencial Sociosanitaria URSS, desde la sección Sociosanitaria durante el año 2025 se han trabajado **450** casos sociosanitarios. Han llegado a Comisión de Valoración y Orientación Sociosanitaria **348** solicitudes y esto ha generado **265** ingresos.

A 31-12 había una lista de espera de **14** personas para acceder a residencias sociosanitarias.

A lo largo del año se ha atendido a **396** personas.

Abenduaren 31n **142** pertsonari ematen zitzaien arreta, horietatik **%51** emakumeak.

Abenduaren 31n okupazioa **%96**koa zen, eta errotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.), **2,68**. Plaza horiek profil iraunkorreko eta psikogeriatrikoko plazek baino errotazio handiagoa dute, beren ezaugarriak direla eta (iraunkorrekoek, (1,27) eta psikogeriatrikokoek, (1,47).

A 31-12 se prestaba atención a **142** personas, un **51%** mujeres.

La ocupación a 31-12 ha sido del **96%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas), **2,68.** Este tipo de plazas, por sus características, presentan una rotación muy superior a las plazas de perfil permanente (1,27) o de unidades psicogeriátricas (1,47).

2.2.3.- DESGAITASUNA

2.2.3.A.- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak, eguneroko beharrizanak beren ohiko ingurunean bete ezin dituzten eta, hortaz, mendekotasun egoeran dauden pertsona desgaituei ohiko etxebizitza iraunkorra, edo aldi baterako bizilekua, ematera bideratutako bizikidetza zerbitzuak dira.

2025ean, ASPACEk kudeatutako Pagoeta egoitza zentro berria ireki da Urretxun, 11 plaza, 10 plaza iraunkor eta aldi baterako plaza 1 dituena.

Txara 1eko 3 bizikidetza-unitatetan banatutako 18 plaza kendu dira, zentroa birmoldatzeko obren ondorioz. Horren ordez, 12 plazako bizikidetza-unitate bat sortu da Txara 2an. Gainera, 10 plazako unitate bat ireki da Urretxuko Pagoeta zentroan. Azken saldoa 4 plazakoa da.

2.2.3.B.- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa

Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak diziplina anitzeko talde profesional batek gauzatutako jardun sorta antolatu eta koordinatu baten bitartez, hartzaileen garapen personal eta soziala, autonomía eta gizarteratzea xede dituen arreta gaitzaile integrala eskaintzen dute.

2.2.3.- DISCAPACIDAD

2.2.3.A.- Centros residenciales para personas con discapacidad

Los centros residenciales para personas con discapacidad son servicios de convivencia destinados a servir de vivienda habitual o permanente y en su caso, temporal, a personas con discapacidad y en situación de dependencia, que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su domicilio personal o familiar.

En el 2025 se abre el nuevo centro residencial Pagoeta en Urretxu, gestionado por ASPACE con una concertación de 11 plazas, 10 plazas permanentes y 1 plaza de carácter temporal.

Se han suprimido 18 plazas distribuidas en 3 unidades de convivencia de Txara 1 debido a las obras de remodelación del centro. En su lugar, se ha creado una unidad de convivencia de 12 plazas en Txara 2. Además, se ha abierto una unidad de 10 plazas en el centro Pagoeta de Urretxu. El saldo final es de 4 plazas.

2.2.3.B.- Centros de día para personas con discapacidad

Los centros de día para personas con discapacidad son centros que proporcionan una atención habilitadora integral orientada a facilitar el desarrorrollo personal y social, la autonomía y la integración social de personas con discapacidad. Esta atención es prestada por un equipo profesional multidisciplinar.

2025ean Urretxuko Labeaga eguneko zentroa itxi da, ASPACEk kudeatua, eta Pagoeta eguneko zentro berria ireki da, ASPACEk kudeatua hori ere, 24 lanplazako itunarekin. Aldaketarekin, lanegunetako 4 plaza gehitzea lortu da.

En el 2025 se cierra el centro de día Labeaga ubicado en Urretxu, gestionado por ASPACE y se abre el nuevo centro de día Pagoeta también gestionado por ASPACE con una concertación de 24 plazas laborables. Con el cambio se consigue aumentar 4 plazas en la modalidad laboral.

Hezkuntza zikloa amaitzen duten gazteei erantzuteko, 2025ean 5 plaza gehitu ditugu Gautenako eguneko zentroan.

Con el fin de dar respuesta a los jóvenes que finalizan el ciclo educativo, durante el 2025 hemos ampliado 5 plazas en el centro de día de Gautena.

Era berean, Goyeneche Fundazioarekin 6 plaza gehiago hitzartu dira, bere zentroetan dauden itxarote-zerrendei erantzuteko.

A su vez, se han incrementado la concertación en 6 plazas con Fundación Goyeneche, para dar respuesta a las listas de espera en sus centros.

T.- 4.- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza eta eguneko zentroetako arretaren datuak / Datos de atención en residencias y centros de día para personas con discapacidad

	Egoitza / Residencia		Eguneko. Z / Centro de día	
	2024	2025	2024	2025
Baimendutako plazak / Plazas autorizadas	1.048	1.056	982	984
Hitzartutako plazak / Plazas concertadas	994	998	858	867
Urtean artatutakoak / Atendidas año	1.030	1.030	850	869
12/ 31 Artatutakoak / Atendidas 31/12	972	978	804	815
12/ 31 Artatutakoak Emak. / Atendidas 31/12 Muj.	394	398	343	345
12/31 Itxarote zerrenda / Lista de espera 31/12	122	174	39	54
Bajaren BB adina / Edad media baja	54,3	52,6	51,5	46,7
Altaren BB adina / Edad media alta	46,2	47,3	44,7	41,5
Egonaldien BB iraupena / Duración media estancias	11,73	11,8	11,63	12,7
Errotazioa / Rotación	1,04	1,03	99%	1,01
Okupazioa / Ocupación	98%	98%	94%	94%

2.2.4.- GAIXOTASUN MENTALA

2.2.4.A.- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza zentroak

Buru-nahaste larria duten pertsonentzako komunitate-ostatuko baliabideak arreta ematen dieten zentro eta zerbitzu soziosanitarioak dira, beren gaitasun eta trebetasun pertsonalak eta harremanetarakoak hobetzeko prestazioen bidez, pertsona horien garapen pertsonala, gizarteratzea eta inguruneko partaidetza sustatzeko eta oro har, beren bizi kalitatea hobetzeko.

2025ean ez dugu plazarik hitzartu .

Atal soziosanitarioan **187** alojamendu landu dira. **67** alojamendu-eskaera iritsi dira Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordera.

2.2.4.B.- Buru-nahaste larria duten errehabilitazio psikosozialeko zentroak

Buru-nahaste larria duten pertsonentzako errehabilitazio psikosozialeko zentroetan diziplina anitzeko talde batek garatutako jarduketa antolatu eta koordinatuen bidez, arreta integrala ematen da ahal den neurrian, garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta gizarteratzea lortzera bideratua.

Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordera errehabilitazio psikosozialeko eguneko jardueraren 36 eskaera iritsi dira eta 4 lekualdatze-eskaera.

2.2.4.- ENFERMEDAD MENTAL

2.2.4.A.- Centros residenciales para personas con enfermedad mental

Los recursos de alojamiento comunitario para personas con Trastorno Mental Severo son centros o servicios de carácter sociosanitario que atienden a personas con enfermedad mental crónica mediante prestaciones orientadas a mejorar sus capacidades y habilidades, personales y relacionales, con el fin de favorecer su desarrollo personal, su integración y participación en el entorno, y, en general, mejorar su calidad de vida.

En 2025 no hemos concertado ninguna plaza.

Desde la sección Sociosanitaria se han trabajado **187** casos de alojamiento. Han llegado a Comisión de valoración y orientación sociosanitaria **67** solicitudes de alojamiento.

2.2.4.B.- Centros de rehabilitación psicosocial para personas con Trastorno Mental Severo

En los centros de rehabilitación psicosocial para personas con trastorno mental severo se proporciona, mediante un conjunto organizado y coordinado de actuaciones desarrolladas desde un equipo profesional multidisciplinar, una atención habilitadora integral orientada, en todo lo posible, a facilitar el desarrollo personal y social, la autonomía y la integración social.

Han llegado a Comisión de valoración y orientación Sociosanitaria 36 nuevas solicitudes de actividad diurna de rehabilitación psicosocial y 4 solicitudes de traslado.

2025ean ez dugu plazarik hitzartu .

En 2025 no hemos concertado ninguna plaza.

T.- 5.- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza eta errehabilitazio psikosozialeko zentroetako arretaren datuak / Datos de atención en residencias y centros de rehabilitación psicosocial para personas con enfermedad mental

	Egoitza / Residencia		BLEPZ / CRTMS	
	2024	2025	2024	2025
Baimendutako plazak / Plazas autorizadas	366	366	250	255
Hitzartutako plazak / Plazas concertadas	354	354	239	239
Urtean artatutakoak / Atendidas año	362	363	262	253
12/ 31 Artatutakoak / Atendidas 31/12	325	333	220	222
12/ 31 Artatutakoak Emak. / Atendidas 31/12 Muj.	104	109	74	73
12/31 Itxarote zerrenda / Lista de espera 31/12	39	42	5	5
Bajaren BB adina / Edad media baja	45,9	46,1	50,8	52,4
Altaren BB adina / Edad media alta	46	42,8	49,3	50,9
Egonaldien BB iraupena / Duración media estancias	2,13	4,72	4,22	5,27
Errotazioa / Rotación	1,02	1,03	1,1	1,06
Okupazioa / Ocupación	92%	94%	92%	92,9%

2.2.4.C.- Laguntza psikosozial komunitarioko programa

Nahasmendu mental larria duten pertsonei laguntza psikosoziala eta komunitarioa emateko programak esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala – etxekoa/komunitarioa – eskaintzen du kasu bakoitzean, komunitatearekiko lotura egokia sustatzeko eta errazteko. Halaber, harremanetan jartzen da erreferentziazko osasun mentaleko zentroarekin, inguruan gaixotasunari arreta emateko dauden baliabide espezifikoen sarearekin eta erabiltzaileek arreta integral eta jarraipen egokia jaso ahal izateko beharrezkoak diren beste baliabide komunitario batzuekin, haien garapen pertsonala eta soziala, autonomia eta gizarteratzea erraztuz.

Horretarako, erabiltzaileek astean behin (normalean bitan) ordubeteko hezkuntza esku-hartzeak izaten dituzte etxean eta/edo komunitatean, eta psikologia saio bat hilean behin.

Saio horiek foru finantzaketa dituzte;

2.2.4.C.- Programa de apoyo psicosocial comunitario

El programa de Apoyo Psicosocial Comunitario para Personas con Trastorno Mental Grave ofrece intervención socioeducativa y psicosocial domiciliaria / comunitaria precisa en cada caso, para promover y facilitar la adecuada vinculación a la comunidad, así como contacto con el Centro de Salud Mental de referencia y con la red de recursos específicos para atención a la enfermedad existentes en la zona y otros recursos comunitarios que resulten necesarios para que las personas usuarias puedan beneficiarse de una adecuada atención integral y continuada, facilitando su desarrollo personal y social, su autonomía y su integración social.

Para ello, las personas usuarias cuentan con intervenciones educativas semanales (habitualmente dos) de una hora de duración en el entorno domiciliario y/o comunitario, y una sesión de psicología mensual.

Dichas sesiones cuentan con financiación foral

Gipuzkoako Foru Aldundiak Agifesekin (Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkartea) eta Ospitalarioak Fundazioa erakundearekin dituen programa kontratuaren barruan dago programa.

dado que el programa está incluido en los contratos programa que la Diputación foral de Guipúzcoa tiene con Agifes, Asociación Guipuzcoana de familiares y enfermos psíquicos, y la entidad Fundación Hospitalarias.

2025ean **131 kasu** artatu dira guztira: 75 Agifesek, eta 56 Ospitalarioak Fundazioak. Era berean, urtean zehar hainbat erabiltzaile erreserba egoeran egon dira.

En el año 2025 se han llegado a atender un total de **131 casos**: 75 por parte de Agifes, y 56 por parte de Fundación Hospitalarias. Asimismo, a lo largo del año ha habido varias personas usuarias que han estado en situación de reserva.

Lehen aipatutako esku-hartzeak guztira 9.515,5 saio izan dira, 6.292,5 Agifesek eta 3.223 Ospitalarioak Fundazioak.

Las intervenciones anteriormente citadas han supuesto un total de 9.515,5 sesiones, 6.292,5 por parte de Agifes y 3.223 sesiones por parte de Fundación Ospitalarias.

12/31n 112 pertsonari ematen zitzaien arreta, 59 gizoni (52,68%) eta 53 emakumei (% 47,32%), 48 urteko batez besteko adinarekin (gutxienekoa, 20, gehienekoa 69); programan 3,7 urteko batez besteko antzinatasuna zuten.

A 31/12 se estaba atendiendo a 112 personas, 59 hombres (52,68%) y 53 mujeres (47,32%), con una media de edad de 48 años (mínima 20, máxima 69); y con una antigüedad media en el programa de 3,7 años.

Erregistratutako erabiltzaileen diagnostikoei dagokienez, % 63,03k eskizofrenia edo beste nahasmendu psikotiko batzuk ditu, % 14,41ek nortasun-nahasmendua eta % 9,01k nahasmendu bipolarra. % 17,12 k substantzia psikoaktiboen kontsumoak eragindako nahasmenduren bat du erregistratuta bigarren diagnostiko gisa (patologia duala).

Respecto a los diagnósticos registrados de las personas usuarias, un 63,03 % tiene esquizofrenia u otros trastornos psicóticos, un 14,41% trastorno de personalidad y un 9,01 % trastorno bipolar. Un 17,12 % tiene como segundo diagnóstico registrado algún trastorno debido al consumo de sustancias psicoactivas (patología dual).

Erabiltzaileek, batez beste, % 58 ko desgaitasuna dute aitortuta, eta % 62 k mendekotasun-graduren bat aitortuta dute (1. mailako % 56 eta 2. mailako % 5).

Las personas usuarias tienen una media de un 58 % de discapacidad reconocida; y el 62 % tienen reconocido algún grado de dependencia (56% grado 1 y 5 % grado 2).

2025ean zehar laguntza psikosozial komunitarioko programan sartzeko 31 eskaera baloratu dira, 28 alta berri eman dira. Eskaeren % 9,68 ukatu ziren, buru-nahaste larriaren diagnostiko-irizpidea ez betetzeagatik.

A lo largo de 2025 se han valorado 31 solicitudes de acceso al Programa, produciéndose 28 nuevas altas. Fueron denegadas un 9,68 % de las solicitudes por no cumplir el criterio diagnóstico de Trastorno Mental Grave.

Alta berrietan, % 57 gizonak dira eta % 43

En las nuevas altas, el 57 % son hombres y 43 %

emakumeak, 42 urteko batez besteko adinarekin. % 46 aitortutako mendetasun-graduren bat du, eta aitortutako desgaitasunaren batez bestekoa % 54 da. % 96 buru-nahasmendu larria diagnostikatzeko irizpideak betetzen ditu, eta programako alta berrien % 18 k substantzien erabileragatiko nahasmenduren bat du bigarren mailako diagnostiko gisa (patologia duala).

2025ean 18 baja izan dira programan (horietatik 3, 12-31n izan ziren) eta persona bat ez zen hasi aurkeztu ondoren.

mujeres, con una edad media de 42 años. Un 46 % tiene algún grado de dependencia reconocido y la media de discapacidad reconocida es del 54%. El 96 % cumple con criterios diagnósticos de trastorno mental grave, y un 18 % de las nuevas altas en el programa, tiene como diagnóstico secundario algún trastorno por uso de sustancias (patología dual).

A lo largo de 2025 se han producido 18 bajas del programa (de las cuales 3 fueron a 31-12) y una persona no inició el Programa tras su presentación.

2.2.5.- MENDEKOTASUNA, DESGAITASUNA ETA GAIXOTASUN MENTALAREN ESPARRUAN ESKAINITAKO ZERBITZUAK

2.2.5.1.- Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratu eta diagnostikatzeko zerbitzua

Mendekotasuna eta desgaitasuna diagnostikatzeko zerbitzuak laguntzen du mendekotasun eta desgaitasun egoerak identifikatzen, eta, hala badagokio, haien mailaketa egiten. Orobat, eskatzaileak bideratzen ditu beren beharrizanei ondoen erantzuten dieten zerbitzurantz edo prestazio ekonomikorantz, edota zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen arteko konbinaziora, haiek eskatzeko betebeharrak betetzen badituzte, betiere.

2.2.5.1.A.- Mendekotasunaren balorazioa

2025ean **14.640** pertsonek eskatu dute MBB balorazioa, hau da, 2024ko data berean baino %0,1gehiago.

2025ean **13.051** balorazio egin dira. Pertsona batzuk balorazio bat baino gehiago dute urtean zehar. Baloratutako **pertsona ezberdinak 12.496** izan dira, 2024ko data berean baino %4 gehiago.

Hona hemen balorazioen emaitza:

2.2.5.- SERVICIOS Y PROGRAMAS PRESTADOS EN EL ÁMBITO DE LA DEPENDENCIA, LA DISCAPACIDAD Y LA ENFERMEDAD MENTAL

2.2.5.1.- Servicio de valoración y diagnóstico de la dependencia y la discapacidad

El servicio de valoración y diagnóstico de la dependencia, y la discapacidad facilita la identificación, y en su caso, la graduación de las situaciones de dependencia y discapacidad. Asimismo, orienta a las personas solicitantes hacia el servicio o la prestación económica, o hacia la combinación de servicios y/o prestaciones económicas que mejor respondan a sus necesidades, siempre que cumplan los requisitos a los mismos.

2.2.5.1.A.- Valoración de la Dependencia

En 2025, **14.640** personas han solicitado la valoración de BVD, un 0,1% más que a la misma fecha de 2024.

En 2025 se han realizado un total de **13.051** valoraciones. Hay personas que tienen más de una valoración a lo largo del año. Las **personas diferentes** valoradas han sido **12.496**, un 4% más que en 2024.

El resultado de las valoraciones es el siguiente:

T.- 6.- MBB mailaren araberako balorazioen emaitza / Resultado de las valoraciones en función del grado BVD

MBB Gradua / Grado BVD	%
0	18
1	39
2	28
3	16

Balorazioa egin zaien pertsonen **%61** emakumeak dira eta **%66ak** 80 urte edo gehiago du.

El **61%** de las personas valoradas son mujeres y el **66%** tiene 80 o más años.

Balorazioak ebazteko batez besteko denbora **58** egunekoa izan da, 2024an baino 10 egun gehiago. Mediana aplikatzen badugu (ebazpen bakoitzean behar diren egunen balio zentrala, txikienetik handienera ordenatuta), ateratzen den balioa **47 egunekoa** izango da.

El tiempo medio de resolución de las valoraciones ha sido de **58 días**, 10 días más que en 2024. Si aplicamos la mediana (valor central de los días que se tarda en cada resolución, ordenados de menor a mayor), el valor resultante sería de **47 días**.

Bestalde, Departamentuari egotz dakiokeen denbora soilik kontuan hartzen bada, besteak beste, Osakidetzaren izapideak eta interesdunari egotz dakizkiokeen atzerapenak alde batera utzita, hala nola eskatutako dokumentazioa aurkezteko atzerapena, ebazteko denbora garbia **34,7** egunekoa da.

Por otro lado, si se considera únicamente el tiempo imputable al Departamento, entre otros, excluyendo los trámites de Osakidetza y los retrasos atribuibles al interesado, como la demora en la aportación de la documentación requerida, el tiempo neto de resolución es de **34,7** días.

Ebazteko batez besteko denbora faseka aztertzen badugu, 17 egun egiaztapenera bideratzen dira, 13 egun zitaziora eta 5 egun gainbegiratzera eta ixtera. Egiaztapen-fasea luzeena da, eta, besteak beste, egiaztapen administratiboaren izapideak, Osakidetzaren nahitaezko txostena eta egiaztapen teknikoa biltzen ditu.

Si analizamos el tiempo medio de resolución por fases, 17 días se destinan a la verificación, 13 días a la citación y 5 días a la supervisión y cierre. La fase de verificación, que es la más prolongada, incluye, entre otros, los trámites de verificación administrativa, la emisión del informe preceptivo de Osakidetza y la verificación técnica.

G. 11.- 12-31n Ebazpenaren faseak. Izapideko egunak / Fases de la resolución. Días por trámite



Bestalde, mendetasunaren balorazioaren batez besteko ebazpen-denbora konparatzen badugu autonomia-erkidegoen arabera, ikus dezakegu 188 egun jaisten dugula Estatuko batezbestekoa eta 22 egun Euskadikoa.

Por otro lado, si hacemos una comparativa del tiempo medio de resolución de la valoración de la dependencia por Comunidades Autónomas, podemos observar que rebajamos en 188 días la media estatal y en 22 días la de Euskadi.

G. 12.- MBB ebazteko batez besteko denborak autonomia-erkidegoen arabera / Tiempos medios de resolución de BVD por Comunidades Autónomas

Iturria: IMSERSOren txostena, 2026-03-31koa. Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren informazio estatistikoa
Fuente: Informe IMSERSO 31-3-2026. Información Estadística del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia

Hurrengo grafikoan mendekotasunaren prebalentziak Gipuzkoan izan duen bilakaera erakusten da – mendekotasun-graduak dituzten pertsonen ehunekoa (1-3 bitartean) biztanleria osoaren aldean –, adin-tarteen arabera banakatuta.

En el siguiente gráfico se muestra la evolución de la prevalencia de la dependencia en Gipuzkoa —medida como el porcentaje de personas con grados de dependencia (entre 1 y 3) sobre el total de la población— desglosada por tramos de edad.

G 13.- Mendekotasunaren prebalentzia adin-tarteka (%) / Prebalentzia de la dependencia en Gipuzkoa por tramos de edad (%)



2.2.5.1.B.- Orientazioaren balorazioa

2023ko martxoan, adinekoen baliabideetarako (egoitza, eguneko zentroa edo aldi baterako egonaldia) plazaren orientazioa eskatzeko prozedura aldatu zen: orain arte RAI esaten zitzaion hori.

Dagoeneko ez da erabiltzen RAI tresna orientabideak egiteko, baizik eta galdetegi bat, egiaztatzen duena ea pertsona hori egoeretako batean dagoen (osasun-egoerarekin lotuta), eta, horren ondorioz, ez ote den gai horrelako baliabideak erabiltzeko.

2023ko martxotik aurrera, orientazio-eskaerak errekurtsoa eskatu ondoren soilik izapidetzen dira. Horren ondorioz, balorazioen kopurua nabarmen murriztu da, eta behar direnak baino ez dira egin, izan ere, ikusi dugu, kasu askotan, RAIarekin baloratutako pertsonek ez zutela plazarik eskatzen.

2025ean, **2.917** pertsonak eskatu dute adineko pertsonen baliabideetarako orientazioa baloratzeko, aurreko urtean baino % 11 eskabide gehiago.

2025ean **2.986** balorazio egin dira eta **2.904** pertsona baloratu dira, hau da, aurreko urtean baino % 7 gehiago.

Balorazioa egin zaien pertsonen **%66** emakumeak dira eta **%78ak** 80 urte edo gehiago du.

Balorazioak ebazteko batez besteko denbora **37 egun**ekoa izan da, iaz baino 9 egun gehiago. Mediana aplikatzen badugu (ebazpen bakoitzean behar diren egunen balio zentrala, txikienetik handienera ordenatuta), ateratzen den balioa **36 egunekoa** izango da.

2.2.5.1.B.- Valoración de orientación

En marzo de 2023 se modificó el procedimiento de solicitud de orientación de plaza para recursos de mayores (Residencia, Centro de día o Estancia temporal): lo que hasta ahora se conocía como RAI.

Ya no se utiliza el instrumento RAI para realizar las orientaciones, sino un cuestionario en el que se comprueba si la persona se encuentra en alguna de las situaciones (relacionadas con el estado de salud) que pueden dar lugar a la no aptitud para este tipo de recursos.

A partir de marzo de 2023 las solicitudes de orientación sólo se tramitan una vez solicitado el recurso, en consecuencia, el número de valoraciones se ha reducido considerablemente, realizándose únicamente aquellas que son necesarias, ya que veníamos observando que, en muchos casos, las personas valoradas con el RAI finalmente no solicitaban ninguna plaza.

En 2025, **2.917** personas han solicitado la valoración de orientación a recursos de personas mayores, un 11% más de solicitudes que el año anterior.

En 2025 se han realizado **2.986** valoraciones y se han valorado un total de **2.904** personas, un 7% más que el año anterior.

El **66%** de las personas valoradas son mujeres y el **78%** tiene 80 o más años.

El tiempo medio de resolución de las valoraciones ha sido de **37 días**, 9 días más que el año anterior. Si aplicamos la mediana (valor central de los días que se tarda en cada resolución, ordenados de menor a mayor), el valor resultante sería de **36 días**.

2.2.5.1.C.- Desgaitasuna

2023ko apirilaren 20an jarri zen indarrean 888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena.

Errege-dekretu hau indarrean jartzean, **desgaitasunaren ebaluazioa 4 baremo** hauek aplikatuz egiten da:

A.- Pertsonaren Urritasun Globalaren Baremoa (PUGB).

- Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuari laguntza teknikoa emateko zerbitzua, haurren eta nerabeen babesgabetasun-egoerak baloratzeko proposamenak egiteko eta babesgabezia-arrisku larriko kasuak koordinatzeko. (Esp. 2025/31)
- Servicio de asistencia técnica al Departamento de Cuidados y Políticas Sociales para el servicio de propuestas de valoración de situaciones de desprotección infantil y adolescente y para la coordinación en los casos de riesgo grave de desamparo. (Expte. 2025/31)
- Autismoaren espektroko nahasmenduan (AEN) duten helduentzako eguneko zentroko zerbitzua Pasaiako Eskalantegi
- Servicio de centro de día en Eskalantegi (Pasaia) para personas adultas con trastorno del espectro del autismo (TEA).

kalean. (Esp. 2025/91)

- Donostiako Jose de Artetxe Idazlea kaleko 2. zenbakian kokatutako Berio Egoitza-Zentroaren inguratzailea birgaitzeko proiektua idaztea eta bestelako azterlan tekniko osagarriak eta obraren zuzendaritza fakultatiboa egiteko lanak burutzea. (Esp. FA 768/2025)

- Egoitza-harrerako zerbitzuaren bakarrik dauden 28 adingabe atzerritarrentzat. (Esp. FA 692/2025)

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza eta eguneko zentroetan indarkeria matxista prebenitzeko, detektatzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloak eguneratzeko, pilotatzeko eta hedatzeko laguntza teknikoko zerbitzua. (Esp. FA 687/2025)

- Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuari laguntza teknikoko zerbitzu bat ematea, laguntzak eta zainketak eraldatzeko kodiseinu eta koprodukzio metodologian oinarritutako gobernantza kolaboratiboko eredu bat diseinatzeko eta bultzatzeko proiektu bat egin eta ezartzeko, arreta-sareko eragileen artean. (Esp. FA 566/2025)

- Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuari laguntza teknikoa emateko zerbitzua kontratatzeko espedientea, 20>30 Zainketen eta Gizarte Politiken Agendaren Komunikazio Plana diseinatzeko eta hedatzeko. (Esp. FA 592/2025)

- Gizarte inklusioko eta emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko zerbitzuaren arreta psikologikoko

(Expte. 2025/91)

- Redacción del proyecto de rehabilitación de la envolvente del Centro Residencial Berio, sito en la calle Escritor José Artetxe número dos de San Sebastián, así como otros estudios complementarios y la dirección facultativa de la obra. (Expte. FA 768/2025)

- Servicio de acogimiento residencial para 28 personas menores extranjeras no acompañadas. (Expte. FA 692/2025)

- Servicio de asistencia técnica para la actualización, pilotaje y difusión de los protocolos de prevención, detección y actuación ante la violencia machista en las residencias y centros de día para personas mayores y con discapacidad del Territorio Histórico de Gipuzkoa. (Expte. FA 687/2025)

- Servicio de asistencia técnica al Departamento de Cuidados y Políticas Sociales para realizar e implantar un proyecto de diseño e impulso de un modelo de gobernanza colaborativa basado en metodologías de codiseño y coproducción para la transformación de los apoyos y los cuidados entre los agentes de la red de atención. (Expte. FA 566/2025)

- Servicio de asistencia técnica al Departamento de Cuidados y Políticas Sociales para el diseño y despliegue del Plan de Comunicación de la Agenda de Cuidados y Políticas Sociales 20>30. (Expte. FA 592/2025)

- Servicio de Asistencia Técnica al programa de atención psicológica del Servicio de Inclusión Social y Atención a la Violencia

programarako laguntza teknikoko zerbitzua. (Esp. FA 572/2025)

- Aholkularitza espezializatuko zerbitzua, Gipuzkoako Plan Operatibo Soziosanitarioan 2025-2028 (POSS) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Baliabideetako Osasun Mentalaren Arreta Planean 2025-2028 (PSM) jasotako proiektuak inplementatzen, jarraitzen, ebaluatzen eta dinamizatzen laguntza teknikoa, metodologikoa eta operatiboa emateko. (Esp. FA 655/2025)

- Buru nahaste larria dutenentzako Irungo "Antzaran" errehabilitazio psikosozialeko zentroko (EPZ) zerbitzua. (Esp. 2025/80)

- IZFE SAk bete beharreko "Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuko Datuen Gune Federatuaren definizioa eta garapena" proiektuaren mandatua onestea. (Esp. 2025KOR63)

- IZFE SA (IFZ A20456976) bete beharreko "Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuko Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako zerbitzuko aplikazioen mantenua eta funtzionaltasun berrien garapena" proiektuaren mandatua onestea. (Esp. 2025KOR51)

- «Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren Plangintza, Itun eta Prestazio Ekonomikoen Zerbitzuaren aplikazioetan funtzionalitate berriak mantentzea eta garatzea» proiektua enkargatzea (kodea: 2025KOR52), IZFE SAk gauzatu beharrekoa. IZFE enkargua. (Esp. 2025KOR52)

- IZFE SAk bete beharreko "Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuko Agenda, Berrikuntza eta Ebaluazioa

Machista contra las mujeres. (Expte. FA 572/2025)

- Servicio de consultoría especializada para el apoyo técnico, metodológico y operativo en la implementación, seguimiento, evaluación y dinamización de los proyectos incluidos en el Plan Operativo Sociosanitario de Gipuzkoa 2025-2028 (POSS) y en el Plan de Atención a la Salud Mental en los Recursos de la Diputación Foral de Gipuzkoa 2025-2028 (PSM). (Expte. FA 655/2025)

- Servicio de centro de rehabilitación psicosocial (CRPS) para personas con trastorno mental severo "Antzaran" de Irun. (Expte. 2025/80)

- Encargo del proyecto "Definición y desarrollo del Espacio Federado de Datos del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales" a ejecutar por IZFE, S.A. Encargo IZFE. (Expte. 2025KOR63)

- Encargo del proyecto "Mantenimiento y desarrollo de nuevas funcionalidades en las aplicaciones del Servicio de Atención a la Dependencia y Discapacidad del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales" a ejecutar por IZFE SA. Encargo IZFE. (Expte. 2025KOR51)

- Encargo del proyecto "Mantenimiento y desarrollo de nuevas funcionalidades en las aplicaciones del Servicio de Planificación, Concertación y Prestaciones Económicas del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales", (código 2025KOR52) a ejecutar por IZFE SA. Encargo IZFE. (Expte. 2025KOR52)

- Encargo del proyecto "Mantenimiento de aplicaciones de sistemas y desarrollos del Servicio de Agenda, Innovación y

Zerbitzuko sistemen eta garapenen aplikazioen mantenua" proiektuaren mandatua onartzea. (Esp. 2025KOR49)

Evaluación del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales" a ejecutar por IZFE SA. (Expte. 2025KOR49)

- "Garapen eta mantentze-proiektuak Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuan. Zabalkuntza" proiektuaren mandatua onartzea. (Esp. FA 718/2025)

- Encargo del proyecto "Proyectos de desarrollo y mantenimiento del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales. Ampliación". (Expte. FA 718/2025)

- Adinekoen esku-hartze goiztiarrerako ekipamendu, software eta gailu berritzaileen hornidura (telelaguntza prediktiboan identifikatutako kasuetan), haien autonomia eta ongizatea sustatzeko, Gipuzkoako lurralde historikoko tokiko zaintza-ekosistemen eta udalerrien esparruan eta suspertze, eraldatze eta erresilientzia planaren esparruan – Next Generation- EK finantzatua –. (Esp. 2025/20)

- Suministro de equipamiento, software y dispositivos innovadores para la intervención temprana (en los casos de uso identificados en la teleasistencia predictiva) de las personas mayores, con el fin de promover su autonomía y bienestar, en el ámbito de los ecosistemas locales de cuidados y municipios del territorio histórico de Gipuzkoa y en el marco del plan de recuperación, transformación y resiliencia -financiado por la UE- Next Generation-. (Expte. 2025/20)

- Medikazio zuzena eta segurua hartzen dela bermatzen duten gailuen edo medikazio-banagailuen hornidura kontratatzeko espedientea, adinekoen autonomia eta ongizatea sustatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko zaintza-ekosistemen eta udalerrien esparruan, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan – EBk finantzatua, Next Generation-. (Esp. FA 403/2025)

- Suministro de dispositivos o dispensadores de medicación que garanticen una toma de la medicación correcta y segura, con el fin de promover la autonomía y bienestar de las personas mayores, en el ámbito de los ecosistemas locales de cuidados y municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia -financiado por la UE- Next Generation-. (Expte. FA 403/2025)

- Idazkaritza teknikoko zerbitzua, Hariak I. Jarduera Plana (2022-2026) koordinatzeko, kudeatzeko, dinamizatzeko, garatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko zereginak koordinatzeko, Bakardadearen inguruko Gipuzkoako Estrategian. (Esp. ADINBERRI2025-01)

- Servicio de Secretaría Técnica con el objeto de realizar las tareas de coordinación, gestión, dinamización, desarrollo, ejecución y evaluación del I. Plan de Actuación (2022-2026) de Hariak, la Estrategia de Gipuzkoa ante las Soledades. (Expte. ADINBERRI2025-01)

- ADINBERRI fundazioaren 2024-2027 aldirako berrikuntza-agenda estrategiko

- Servicio para de actualización, desarrollo, seguimiento y evaluación del plan de

berriaren testuinguruan komunikazio-plana eguneratzeko, garatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko zerbitzua. (Esp. ADINBERRI2025-02)

- Fundación Adinberri Fundazioari 2024-2027 aldirako Berrikuntza Agenda Estrategikoa hedatzeko lotutako lanetan laguntza emateko bulego teknikoko aditu-zerbitzua, zahartzearen eta bizitza-luzeraren ondoriozko erronken esparruan. (Esp. ADINBERRI 2025-03)

comunicación en el contexto de la nueva agenda estratégica de innovación 2024-2027 de la Fundación ADINBERRI. (Expte. ADINBERRI2025-02)

- Servicio experto de oficina técnica para dar soporte a la Fundación Adinberri en las labores vinculadas al despliegue de su Agenda Estratégica de Innovación 2024-2027, en el marco de los retos derivados del envejecimiento y la longevidad. (Expte. ADINBERRI 2025-03)

4.1.2.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

2025. urtean 14 eskabide egin dituzte.

4.1.2.- Derecho de acceso a la información pública

En 2025 ha habido 14 solicitudes.

4.1.3.- Datu pertsonalak babestearen arloko eskubideak

2025. urtean 3 eskabide egon dira.

4.1.3.- Derechos en materia de protección de datos de carácter personal

En 2025 ha habido 3 solicitudes.

4.1.4.- Jendearen arretarako bulegoa

2025. urte osoan Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren Txara IIko informazio bulegoa herritarentzat irekita egon zen 8:30etik 14:00etara.

Arretaren banaketa, gaiaren arabera, hau litzateke:

4.1.4.- Oficina de atención al público

Durante todo el año 2025 la oficina de información de Txara II del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales permaneció abierta al público en el horario habitual de 8:30 h. a 14:00 h.

Según el tema, la distribución de la atención sería la siguiente:

T. 20.- Jendearen arreta / Atención al público

Herritarrei Arreta/ Área de atención ciudadana	**2025ean Artatutako guztiak/** Total personas atendidas en 2025
Familia ugariko tituluak/ Titulos familia numerosa	1.066
B@KQ	127
Ziurtagiriak/ Certificados	927
Informazioa: Izapideak / Información: trámites	49
Mezularitza / Mensajería	8
Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren hitzorduak / Citas del Servicio de Protección de Infancia y Adolescencia	85
Haurren eta Nerabeeen Babeseko Zerbitzuaren bisiten eskaerak/ Solicitud de visitas al Servicio de Protección de Infancia y Adolescencia	84
Haurren eta Nerabeeen Babeseko Zerbitzuaren: txostenen eskaera-izapideak / Solicitud de informes y otros trámites al Servicio de Protección de Infancia y Adolescencia	414
Prestazio ekonomikoak: informazioa eta izapidetza/ Prestaciones económicas: Información y tramitación	834
Desgaitasuna: informazioa eta izapidetza/ Discapacidad: información y tramitación	964
Desgaitasuna. Baloratzako hitzorduak/ Citas valoración discapacidad	392
Mendekotasuna: informazioa eta izapidatzea/ Dependencia: información y tramitación	257
Hitzordu orokorrak/ Citas sin especificar	594
Gizarte inklusioko eta indarkeriaren matxistaren arretako Zerbitzuaren Hitzorduak/ Citas del Servicio de Inclusion social y atención a las víctimas de violencia machista	88
Gizarte inklusioko Informazioa eta izapidatzea/ Inclusión social información y trámites	177
Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta: Informazioa eta izapideak / Atención victimas violencia machista: Información y trámites	136
Bertaratze agiriak/ Justificantes asistencia	239
Jakinarazi aplikazioa/ Aplicación Jakinarazi	141
Kontsultak, kexak eta iradokizunak/ Consultas, quejas y sugerencias	9
GUZTIRA/TOTAL	**6.591**

4.1.5.- Telefono bidezko informazio zerbitzua

2025ean departamentuko telefono orokorrean **21.174** dei artatu ziren, batez bestezko hilero 1.765, aurreko urtean baino 3.502 dei gehiago. Dei guztietatik 246 ez ziren departamentukoak.

Horietatik %93a lehenengo arretan ebatzi ziren departamentuko arreta espezializatutako zerbitzuari dagokiona (2024an %90a), eta %7a bigarren arretara bideratu ziren, zegozkien departamentuko ataleei.

Kontsulta arloaren arabera, honela banatuko lirateke lehen arretako deiak:

4.1.5.- Servicio de información telefónica

Durante el 2025 en el teléfono general del Departamento se atendieron **21.174** llamadas, 1.765 mensuales de media, y con un incremento de 3.502 llamadas con respecto al año anterior. Del total de las llamadas se recibieron 246 que no eran temas del departamento.

De esas llamadas el 93% se atendió en el nivel de primera atención correspondiente al teléfono especializado del departamento (90% en 2024), y un 7% se derivaron al segundo nivel de atención, a las secciones correspondientes.

Según el área de consulta la distribución de las llamadas de la primera atención sería la siguiente:

T. 21.- Distribución de las llamadas de primera atención / Lehen arretako deien banaketa

Urtea Año	**Ebatzitako deiak /** Llamadas resueltas	**Bideratuko deiak /** Llamadas transferidas
2025	**19.739**	**1.435**

Arloa/ *Área de atención*	**2024 Ebatzitakoak/** Resueltas	**2025 Ebatzitakoak /** Resueltas	**2024 Bideratutakoak /** Transferidas	**2025 Bideratutakoak /** Transferidas
Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arreta/ Atención a la Dependencia y Dependencia y Discapacidad	7.481	10.039	753	620
Plangintza Itun eta Prestazio ekonomikoak/ Planificación, Concertación y Prestaciones económicas	4.781	5.415	553	424
Idazkaritza teknikoa / Secretaría Técnica	2.388	3.066	113	113
Haurren eta Nerabeen Babesa/ Servicio de Protección a la Infancia y Adolescencia	339	439	180	115
Gizarte Ink. Eta Indar. Matxistaren Emakume Biktimen Arreta/ Servicio de Inclusión Social y Atención a la Violencia Machista	371	483	132	103
Ikuskapena, Inbertsioak eta Gizarte Ekimena/ Inspección, Inversiones e Iniciativa Social	17	17	37	37
Agenda Berrikuntza eta Ebaluazioa / Agenda, Innovación y Evaluación	12	27	47	19
Diputatuaren Kabinetea / Gabinete de la Diputada	3	3	8	4
Zentroen kudeaketa integrala / Atención integral de centros	0	4	0	0
Beste batzuk / Otros [1]	457	246	0	0
Guztira */Total*	**15.849**	**19.739**	**1.823**	**1.435**

[1] *Aldundiko telefono gunetik gaizki bideratutako deiak / Llamadas mal derivadas desde centralita*

4.1.6.- Kontsultak, kexak eta iradokizunak

Departamentuak 2025ean **GERTUBIDE** aplikazioaren bidez **524** kontsulta, kexa eta iradokizunak jaso zituen eta horietatik 486 erantzun ziren. Ezarritako epearen barruan 405 erantzun ziren, erantzundako eskaeren % 83,33, eta epez kanpo 81, % 16,66. Erantzun gabe geratu dira 38, jasotako eskaeren % 7,25. Atal honetatik 21 kexa edo iradokizunak erantzun dira eta 52 kontsultak.

2025. urtean honako hau da eskaeren sailkapena, tipologiaren arabera GERTUBIDE aplikazioan: 265 kontsulta (%50,57), 250 kexa edo iradokizun (%47,71) eta 9 informazio publikoko eskaera (% 1,72).

Hizkuntzari dagokionez, euskaraz aurkeztutakoak % 12,21a eta eskaeren % 87,79a gazteleraz izan ziren.

Eskatzaileen % 25,58 emakumeak izan dira, % 14,12 gizonak eta % 60,30 ez dakigu edo ez ziren pertsona fisikoak.

2025ean, **departamentuaren helbide elektronikoaren bidez** (info.gizartekintza@gipuzkoa.eus) jasotako eskaerak 471 izan dira guztira.

Jasotakoen artean, GERTUBIDE 26 aplikazioan sartu dira, eta atal honetatik erantzun zaie kopuru osotik 235eri.
Gainerako 236 eskaerak departamentu honetako atal, zerbitzu eta zuzendaritzetara bideratu dira, erantzun dezaten.

4.1.6.- Consultas, quejas y sugerencias

El departamento en 2025 recibió a través de la aplicación **GERTUBIDE 524** consultas, quejas y sugerencias de las que se respondieron a 486. Dentro del plazo establecido se contestaron a 405, el 83,33%, y fuera de plazo 81 de las solicitudes respondidas el 16,66%. Se han quedado sin responder 38, el 7,25 % de las recibidas. Desde esta Sección se han respondido a 21 quejas o sugerencias y a 52 consultas.

En el año 2025 la clasificación de las solicitudes por tipología en la aplicación GERTUBIDE es la siguiente: 265 consultas (50,57%), 250 quejas o sugerencias (47,71%) y 9 solicitudes de información pública (1,72%)

El idioma utilizado fue el euskera en un 12,21 % y el castellano en el 87,79 % de las solicitudes.

El 25,58 % de las personas solicitantes han sido mujeres y el 14,12 % hombres y un 60,30 % no se sabe o no eran personas físicas.

Las solicitudes recibidas en 2025 a traves de la **dirección de correo electrónico del departamento** (info.gizartekintza@gipuzkoa.eus) han sido un total de 471.

Se han incluido dentro de la aplicación GERTUBIDE 26 de las solicitudes recibidas y se han respondido desde esta Sección a 235 del total. Las restantes 236 solicitudes se han derivado a las correspondientes Secciones, Servicios y Direcciones de este departamento para su respuesta.

T. 22.- Erreklamatzeko edo kontsultatzeko modua / Forma de reclamar o consultar

Erreklamazio mota / Tipo de reclamación	**2024 Gertubideko aplikazioan /** En la aplicación Gertubide	**2025 Gertubideko aplikazioan /** En la aplicación Gertubide
Informazio Publikoa eskatzea / Solicitud de información Pública	5	9
Kexak edo iradokizunak / Quejas o sugerencias	306	250
Kontsultak / Consultas	276	265
Guztira / Total	**587**	**524**

Departamentuko posta elektronikoko helbidera / A la dirección de correo electrónico del Departamento.	**2024**	**2025**
Jasotako eskaeren kopurua/Número de solicitudes recibidas	635	471
Erantzundako eskaeren kopurua / Número de solicitudes respondidas	277	235
Bideratutako eskaeren kopurua / Número de solicitudes derivadas	358	236
Familiak-ugariko posta elektronikoko helbidera/ A la dirección de correo electrónico de familias numerosas		
Jasotako eta erantzundako eskaerak / Solicitudes recibidas y contestadas	2.858	2.267
Guztira jasotako eskaerak / Total solicitudes recibidas	**4.128**	**3.209**

4.1.7.- Familia ugarien tituloak

Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuko Jendearen Arretarako eta Laguntza eta Barne Koordinazioko Atalak, Foru Aldundiko jendearen arretarako bulego zentralarekin batera, 2023. urtean familia ugariko **4.918 titulu berri edo berritu** eman zituen, aurreko urtean baino % 8,23 gehiago.

89 eskaera ukatu edo artxibatu dira atzera egiteagatik, aurreko urtea baino 21,9% gehiago.

4.1.7.- Títulos de familia numerosa

La Sección de Atención al Público y de Apoyo y Coordinación Interna del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales, junto con la oficina de atención al público central de la Diputación Foral, emitió durante 2025, **4.918 títulos nuevos o renovaciones** de familia numerosa, un 8,23% más que el año anterior.

Se han denegado 89 solicitudes, un 21,9% mas que el año anterior.

4.1.8.- Ziurtagiriak

2025ean Atal honetatik **18.888 ziurtagiri** emititu ziren, aurreko urtean baino % 28,62 gutxiago.

4.1.8.- Certificados

En 2025 desde esta Sección se tramitaron a través de la aplicación **18.888 certificados**, un 28,62 % menos que el año anterior.

4.1.9.- Sarrera eta irteera erregistroak

2025ean **12.330** dokumentu erregistratu ziren departamentuan, aurreko urtean baino % 4,06 gutxiago.

Erregistroen Interkonexio Sistemaren **(SIR)** bidez **bidalitako** dokumentuak **1.083** izan dira eta **10.624 jasotakoak**, aurreko urtean baino % 25,78 eta % 285,28 gehiago, hurrenez hurren.

4.1.9.- Registros de Entrada y Salida

En 2025 se registraron en el departamento **12.330** documentos, un 4,06 % menos que el año anterior.

Los documentos **enviados** a través del Sistema de Interconexión de Registros (SIR) han sido **1.083** y **10.624** los **recibidos** a través de esta vía, un 25,78% y un 285,28% más que el año anterior respectivamente.

4.1.10.- Gizarte Zerbitzuetako Foru Erregistroa

2025. urtean **33 inskripzio eskaera** jaso dira **entitate** berrientzat, **13** zentroentzako eta **38 zerbitzuentzako**. Izena emateko eskaera horiez gain, **710** datuen **aldaketa** eskaerak jaso dira: 250 entitateen datu aldaketa eskaera, 82 zentroena eta 378 zerbitzuena.

4.1.10.- Registro Foral de Servicios Sociales

En el año 2025 se han recibido **33 solicitudes de inscripción** de nuevas **entidades, 13** de **centros y 38 de servicios**. Además de estas solicitudes de inscripción se han recibido **710** solicitudes de **modificación**: 250 de las entidades, 82 de los centros y 378 de los Servicios

T. 23.- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Foru Erregistroa / Registro Foral de Servicios Sociales de Gipuzkoa

Gizarte Zerbitzuetako Foru Erregistroa/ Registro Foral de Servicios Sociales	**Entitateak/** Entidades	**Zentroak/** Centros	**Zerbitzuak/** Servicios
Inskripzio eskaerak/ Solicitudes de inscripción	33	13	38
Aldaketa eskaerak/ Solicitudes de modificación	250	82	378
Baja- eskaerak/ Solicitudes de baja	18	5	16

4.2.- Gizarte Ekimena

Honako hauek dira Gipuzkoako lurraldeko gizarte-zerbitzuen eremuan irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei dirulaguntzak emateko 2025eko deialdiaren datuak:

4.2.- Iniciativa social

Los datos de la convocatoria de subvenciones a entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro en el ámbito de los servicios sociales del territorio histórico de Gipuzkoa son los que se indican a continuación:

T. 24.- Gizarte ekimena. Deialdia / Iniciativa social. Convocatoria

Adierazlea/ Indicador	**Pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku hartze soziala /** Intervención social con personas, familias, grupos y comunidades	**Egoera eta arazo sozial jakin batzuekiko sentsibilizazio eta prebentzioa /** Sensibilización y prevención hacia determinadas situaciones problemáticas sociales	**Gizarte behar berrien eta gizarte arretaren inguruko ikerketa eta berrikuntza /** Investigación e innovación en caracterizar necesidades sociales emergentes y formas de atención social	**Eraldaketa digitalerako eta modernizacio teknologikoa egiteko dirulaguntzak /** Subvenciones para la transformación digital y la modernización tecnológica	**Guztira/ Total**
Zenbat elkarte aurkeztu dute eskaera/ Número de asociaciones que presentaron solicitud	105	76	19	69	**269**
Zenbat programa egiteko eskatu dute laguntza / Nº de programas para los que solicitan ayuda	198	112	20	_	**330**
Zenbat programa lagundu ziren/ Nª de programas subvencionados	179	103	20	66	**368**
Guztira, elkarteek zenbat diru eskatu zuten/ Importe total solicitado	2.690.581	606.051	90.296	256.342	**3.643.270**
Departamentuak zenbat ordaindu du/ Importe abonado por el Departamento	1.084.204	250.000	90.263	193.366	**1.617.833**

Bestalde, lurraldeko irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeak sustatzeko prestakuntza-ekintzak honako hauek izan dira:

(1) Europako Boluntariotza Zerbitzuaren prestakuntza-ikastaroa, Kaebnaik emana. Bertan, 18 eta 30 urte bitarteko 20 gazte gipuzkoarrek parte hartu zuten, boluntariotza-zerbitzu bat gauza dezaten edo elkartasunaren sektoreko proiektuetan parte har dezaten, beren herrialdean bertan, Europar Batasuneko beste herrialde batean edo kanpoan. Maiatzaren 16tik 18ko asteburuan egin zen, Hondarribiko Juan Sebastian Elkano aterpetxean.

Las acciones formativas destinadas al fomento de las organizaciones sociales sin ánimo de lucro del territorio han sido las que se indican a continuación:

(1) Curso de formación del Servicio de Voluntariado Europeo impartido por Kaebnai en el que participaron 19 jóvenes guipuzcoanos de entre 18 y 30 años, con el objetivo de llevar a cabo servicios de voluntariado o participar en proyectos en el sector de la solidaridad, en su propio país, en otro país de la Unión Europea o fuera de ella. Tuvo lugar el fin de semana del 16 al 18 de mayo en el Albergue Juan Sebastián Elkano de Hondarribia.

(2) Dirulaguntzak kudeatzeko eta proiektuak egiteko prestakuntza-tailerra. Alde teorikoa 18 orduko iraupena izan zuen, online moduan eman zen eta 20 pertsonak parte hartu zuten. Eta hori amaitzean, aurrez aurreko tutoretza eman zitzaien elkarte bakoitzaren proiektuetara eta errealitatera egokitua. Saregintza, Estrategia, Kalitatea eta Garapena 3. sektoreak eman zuen.

(2) Taller formativo para la gestión de subvenciones y elaboración de proyectos de 18 horas de duración, en la modalidad online, en el que participaron 20 personas. A la finalización de la parte teórica, se impartió una tutoría presencial adaptada a los programas y la realidad de cada asociación, en la que participaron 10 entidades. Ha sido impartida por Saregintza, Estrategia, Calidad y Desarrollo 3er Sector.

(3) Elkarteak digitalizatzeko prestakuntza-ekintza, eduki teorikoko 36 ordukoa, online modalitatean eta elkarte bakoitzaren eskakizunetara berezitutako aurrez aurreko sei saioetan garatua, TaPuntu koop. elk. Txikiak emana.

(3) Acción formativa para la digitalización de las asociaciones, desarrollado en un total de 36 horas de contenido teórico, en modalidad online y 6 sesiones presenciales particularizadas a los requerimientos de cada asociación, impartido por TaPuntu koop. elk. Txikia.

2025eko abenduaren 19an, egoitza Txara 1eko Gizagunean zuten hirugarren sektore sozialeko erakundeak Ondarretako Gizagunera pasa ziren (Ondarretako pasealekua 20, Donostia).

El 19 de diciembre de 2025 las organizaciones del tercer sector social que tenian su sede en el Gizagune de Txara 1 pasaron al Gizagune de Ondarreta en Paseo de Ondarreta, 20 de Donostia.

Instalazio horietan, elkarte bakoitzak coworking modalitatean lan egiteko guneak, bi armairu eta biltegiratze-apalategiak ditu. Era berean, sei bilera-gela dituzte, erakundeek beren esku-hartzeak egin ditzaten, eta balio anitzeko bilera-gela bat, hitzaldiak, bilerak, batzarrak eta prestakuntzak egiteko.

En estas instalaciones cada asociación cuenta con espacios para trabajar en la modalidad de coworking, dos armarios-taquilla y estanterias de almacenamiento. Asimismo, cuentan con seis salas de reuniones para que las entidades lleven a cabo sus intervenciones y una sala de reuniones polivalente para la celebración de charlas, reuniones, asambleas y formaciones.

Zerbitzu horiek urteko egun guztietan erabil daitezke, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 18:30era. Edonola ere, 21:30ak arte erabili ahal izango dute, baita asteburuetan eta jaiegunetan ere.

Pueden hacer uso de dichos servicios todos los dias del año, de lunes a viernes, de 09:00 a 18:30 horas. De cualquier manera, podrán utilizarlo hasta las 21:30 horas, así como los fines de semana y festivos.

Donostiako Pagolako Gizagunean, berriz, beste bost elkarte daude.

El Gizagune de Pagola, también en Donostia, alberga a otras cinco asociaciones.

Bestalde, departamentuak Gizalde,

Por otro lado, el departamento financia el

Gipuzkoako Boluntariotzaren Agentzia proiektua finantzatzen du. Proiektu horren helburuak dira irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimena sustatzea – elkarteak –, bai eta boluntariotza bultzatzea ere, Boluntariotzari buruzko 17/1998 Legean xedatutakoaren arabera. Hori guztia, elkartea boluntariotza garatzen den esparrua dela kontuan hartuta.

proyecto Gizalde, Agencia del Voluntariado de Gipuzkoa, que se plantea como objetivos el fomento de la iniciativa social sin ánimo de lucro –asociacionismo-, así como el impulso del voluntariado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley 17/1998 de Voluntariado. Todo ello desde la perspectiva de que la asociación es el marco en el que se desarrolla el voluntariado.

Agentziaren arreta-ordutegia 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era da, eta honako eginkizun hauek betetzen ditu: hirugarren sektore sozialeko erakundeei zuzendutako zerbitzuen kudeaketa, hala nola bi bilera-gelen kudeaketa, aldi baterako biltegia, materiala mailegatzeko zerbitzua (ikus-entzunezkoak, mahaiak, aulkiak, karpak, intendentzia, etab.), "Gizaldetik" asteroko buletinaren edizioa eta, azkenik, webgunearen kudeaketa.

El horario de atención de la Agencia es de 09:00 a 14:00 y de 16:00 a 18:30 horas y las funciones son: gestión de los servicios destinados a las entidades del tercer sector social, tales como gestión de dos salas de reuniones, almacén temporal, servicio de préstamo de material (audiovisual, mesas, sillas, carpas, intendencia, etc.), la edición del boletín semanal “Gizaldetik” y, por último, la gestión de la web.

Boluntariotzari dagokionez, sentsibilizazio-ekintzetan, hitzaldietan eta boluntariotza-azoketan parte hartzen dute, eta hilero ordubateko prestakuntza-saioak egiten dituzte, "boluntariotzara hurbiltzea" izenburupean.

En relación al voluntariado, participan en acciones de sensibilización, charlas y ferias de voluntariado y organizan sesiones de formación mensuales -de una hora de duración- que llevan por título “acercarse al voluntariado”.

2025eko abenduan, Gizalderen bulegoak Ondarretako Gizagunera leku aldatu ziren. Arreta 0 solairuan, solairuartean eta lehen solairuan ematen dute, eta A eta B bilera-gelak bigarren solairuan daude.

En diciembre de 2025 las oficinas de Gizalde fueron trasladadas al Gizagune de Ondarreta. La atención la realizan en la planta 0, entreplanta y planta primera y las salas de reuniones A y B se encuentran en la segunda planta.

Bestalde, **Gipuzkoako Boluntariotzaren Sariaren** 2025eko edizioan, ARRATS elkarteko TXIKI TXOKO proiektuari saria eman zaio, ikuspegi sozial, humanitario eta solidario batetik komunitateari emandako zerbitzua aitortzeko.

El Premio al Voluntariado Guipuzcoano, en su edición del 2025, ha recaido en el proyecto TXIKI TXOKO gestionado por la asociación ARRATS, Recursos Sociales y Jurídicos, en reconocimiento a sus servicios a la comunidad desde una perspectiva social, humanitaria y solidaria.

Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia bi

La Mesa del Diálogo Civil de Gipuzkoa se

aldiz bildu zen 2025ean.

Azkenik, 2025eko lehen seihilekoan, departamentuaren boluntariotzaren estrategia diseinatzeko aurreikusitako sei saioak egin ziren. Ekimena Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaitik sortu zen eta, Gizalde Gipuzkoako Boluntariotzaren Agentziaz gain, boluntariotzako Gipuzkoako hamar erakundek, Agenda, Berrikuntza eta Ebaluazio zerbitzuko ordezkaritza batek eta Gobernu Onerako eta Herritarren Partaidetzarako zerbitzuko beste batek parte hartu.

Boluntariotzaren estrategia 2026ko lehen hiruhilekoan ezarriko da.

reunió en dos ocasiones en el 2025.

Por último, el primer semestre del 2025 tuvieron lugar las seis sesiones previstas para el diseño de la estrategia del voluntariado del Departamento. La iniciativa surgió de la Mesa del Diálogo Civil de Gipuzkoa y participaron, además de Gizalde, Agencia del Voluntariado de Gipuzkoa, diez entidades guipuzcoanas de voluntariado, una representación del Servicio de Agenda, Innovación y Evaluación y otra del Servicio de Buen Gobierno y Participación Ciudadana.

La implementación de la estrategia del voluntariado se establecerá el primer trimestre del 2026.

4.3.- Kudeaketa ekonomikoa

Ondorengo tauletan ageri da gizarte zerbitzuak eskaintzeko 2025eko kontratu eta hitzarmenen kudeaketarako esleitutako aurrekontua, baita hori sektoreka nola banatu den ere.

4.3.- Gestión económica

En las siguientes tablas se muestra la distribución por sectores y el presupuesto asignado a la gestión de los contratos y convenios para la prestación de servicios sociales en 2025.

T. 25.- Hitzarmenak eta kontratuak / Convenios y contratos

Taldea/Colectivo	Hitzarmenak/Convenios		Kontratuak/Contratos		Guztira/Total	
	Kop/Núm.	Presupuesto/ Aurrekontua	Kop/Núm.	Presupuesto/ Aurrekontua	Kop/Núm.	Presupuesto/ Aurrekontua
Adinekoak/Mayores	218	95.642.323,18 €	17	30.688.916,10 €	235	126.331.239,28 €
Desgaitasuna/Discapacidad	30	51.063.409,86 €	10	10.527.015,46 €	40	61.590.425,32 €
Buruko gaitza/Enf. mental	16	15.932.149,03 €	7	1.390.377,29 €	23	17.322.526,32 €
Adingabeak/Menores	14	24.629.889,59 €	22	46.543.839,37 €	36	71.173.728,96 €
Gizartaratzea/Inserc.Social	47	38.798.329,82 €	6	5.392.947,68 €	53	44.191.277,50 €
Orokorrak/Genéricos	8	674.057,60 €	3	937.558,50 €	11	1.611.616,10 €
Guztira/Total	**333**	**226.740.159,08 €**	**65**	**95.480.654,40 €**	**398**	**322.220.813,48 €**

T. 26.- Hitzarmenak / Convenios

	Luzatuak/ Prorrogados	Aldatuak/ Modificados (*)	Berriak/ Nuevos	Guztira/ Total
Adinekoak/Mayores	209	68	9	286
Desgaitasuna/Discapacidad	26	15	4	45
Buruko gaitzak/Enfermedad mental	16	6	0	22
Adingabeak/Menores	14	9	0	23
Gizarteratzea/Inserción Social	30	32	17	79
Orokorrak/Genéricos	7	0	1	8
Guztira/Total	**302**	**130**	**31**	**463**

(*) 2025ean sinatutako hitzarmen berri batzuk eta luzatutako beste batzuk, urtean zehar, aldatu izan dira. Era berean, zenbait hitzarmen hainbat bider aldatu dira.
(*) Convenios nuevos y prorrogados que posteriormente se han modificado; algunos de esos convenios se han modificado varias veces durante el año 2025

4.4.- Ikuskapena

Urtarrilaren 23ko 24/2025 Foru Aginduaren bidez, 2025erako Gizarte Zerbitzuen arloko Ikuskapen Plana onartu zen.

Ikuskapen Atala ziurtatuta dago UNE-EN ISO 9001-2015 arauari dagokionez; arau hori AENORek 2025eko ekainaren 26an egindako auditoretzan berritu zen.

2023ko martxoaren 21eko 212/2023 Foru Aginduaren bidez, Gizarte Zerbitzuetako Zerbitzuak eta Zentroak Baimentzeko Zerbitzuen Karta berritu zen, eta aurreko gutunean hartutako konpromisoak aldatu ziren.

Gainera, 2022ko urriaren 31ko 546/2022 Foru Aginduaren bidez, Ikuskapen Zerbitzuak kudeatutako Kontsulta, Kexa eta Iradokizunen Zerbitzuen Karta onartu zen, eta haren eginkizunak 2025ean zehar neurtu eta ebaluatu dira.

2025ean **532** ikuskapen egin dira.

4.4.- Inspección

Por orden foral 24/2025, de 23 de enero se aprobo el Plan de Inspección en materia de Servicios Sociales para el año 2025.

La Sección de Inspección está certificada respecto a la norma UNE-EN ISO 9001-2015 renovada en la auditoría realizada por AENOR el día 26 de junio de 2025.

Mediante Orden Foral 212/2023 del 21 de marzo de 2023 se procedió a al renovación de la Carta de Servicios de Autorización de Servicios y Centros de Servicios Sociales en la que se modificaron los compromisos adquiridos en la carta anterior .

Además mediante Orden Foral 546/2022 de 31 de octubre de 2022 fue aprobada la Carta de servicios de Consultas, quejas y sugerencias gestinadas por el Servicio de Inspección cuyos cumpromidos han sido medidos y evaluados a lo largo del 2025.

Durante el año 2025 se han realizado **532** inspecciones.

T. 27.- Ikuskapenak / Inspecciones

Baliabidea/Recurso	Ikuskapen kop./ Núm. de Inspecciones
Atalean burututako ikuskapen kopurua/ Número total de inspecciones realizadas en la sección	532
Burututako aholkatze-bisitaldien kopurua/ Número de visitas de asesoramiento realizadas	22
Adineko pertsonentzako egoitzetan ikuskapen kopurua/ Número de insepecciones en residencias para personas mayores	248
Adineko pertsonentzako eguneko zentroetan ikuskapen kopurua/ Número de inspecciones de centros de día de personas mayores	100
Babesgabezian dauden adingabeentzako zentroetan ikuskapen kopurua/ Número de inspecciones en centros para personas menores en desprotección	71
Emakumeen zentroetan ikuskapen kopurua/ Número de inspecciones en centros para mujeres	13
Arreta Goiztiarren zentroetan ikuskapen kopurua/ Número de inspecciones en centros de atención temprana	35
Sektoreko ikuskapen kopurua Arreta Goiztiarra ez diren zentroetan. Besteak / Nº de inspecciones de sector que no son de atención temprana. Otros	0
Desgaitasun zentroetan ikuskapen kopurua / Número de inspecciones en centros para personas con discapacidad	21
Gaixotasun mentaleko zentroetan ikuskapen kopurua / Nº de inspecciones en centros para personas con enfermedad mental	3
Gizarteratzeko zentroetan ikuskapen kopurua/ Número de inspecciones en centros para personas en inserción	41
Zentro soziosanitarioetan egindako ikuskapen kopurua/ Número de inspecciones realizadas en centros sociosanitarios	0

Egindako ikuskapenen % 66 planifikatu gabe egin dira, eta % 46 adineko pertsonentzako egoitzetara egindako bisitak izan dira.

De las inspecciones efectuadas, el 66% de las visitas efectuadas han sido no planificadas y el 46% han sido visitas realizadas a residencias para personas mayores.

Gizarte-zerbitzuetako arreta-baliabideekin lotutako **71** kexa eta erreklamazio erregistratu dira.

Se han registrado **71** quejas y reclamaciones relacionadas con recursos de atención en los servicios sociales.

Erantzuteko batez besteko denbora **13,6 egunekoa** izan da, eta erantzun guztien % 3,3k soilik gainditu dute 20 eguneko epea. Nabarmentzekoa da kudeatutako kexen % 83,1an hobekuntza-arloak ezarri direla, dagokien jarraipenarekin. Kexak eragin dituzten arrazoi nagusiak hauek izan daitezke: arreta pertsonal eskasa, osasun-langileen ratiorik eza, greba etab.

El tiempo medio de respuesta ha sido de **13,6 días** y únicamente el 3,3% de las mismas han superado los 20 días de respuesta. Cabe reseñar que en el 83,1% de las quejas gestionadas se han instaurado áreas de mejora con el seguimiento correspondiente. Los motivos principales que han motivado las quejas se pueden resumir en deficiente atención personal, falta de ratio de personal

sanitario, huelga etc.

Kexak kudeatu ondoren, 52 inkesta bidali dira, eta horietatik 22 erantzun jaso dira.

Tras la gestión de las quejas se han enviado desde la sección 52 encuestas de las se han obtenido 22 respuestas.

2025ean, aldez aurreko 10 baimen-espediente eta funtzionamendu-baimenen 19 espediente hasi dira.

En el año 2025 se han iniciado 10 expedientes de autorizaciones previas y 19 expedientes de autorizaciones de funcionamiento.

Era berean, funtzionamenduaren aldeko 48 txosten hasi dira (berariazko araudirik ez duten zentroei egindakoak).

Asimismo, se han iniciado 48 informes favorables de funcionamiento (emitidos a centros que no disponen de normativa específica).

Aurretiazko baimenak ebazteko batez besteko epea 23,2 egunekoa izan da, eta funtzionamendukoena 25,7 egunekoa.

El plazo medio de resolución de las autorizaciones previas ha sido de 23,2 días y el de las de funcionamiento de 25,7 días.

4.5.- Inbertsioak

Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko areak Departamentuan egin beharreko inbertsioak osatu, garatu eta kontrolatzen ditu, hain zuzen ere zentro propioetan zein hitzartuetan ekipamendu sozialak eraiki edo egokitzeko. Horrez gain, departamentuari atxikitako higiezinen mantentze-lanen jarraipena eta gainbegiratzearen ardura ere badu.

Gizarte Zerbitzuetako zentroetan inbertsioak egiteko Laguntza Planaren esparruan, **11.500.000** euroko dirulaguntzak eman dira, honela banatuta:

- **1.919.064** euro udal eskumeneko zentro berriak sortzeko.
- **535.020** euro dauden zentroak handitu, eraberritu edo/eta egokitzeko (Tokiko erakundeak).
- **1.712.110** euro zentro berriak sortzeko (entitate pribatuak).
- **7.204.396** euro dauden zentroak handitu, eraberritu edo/eta egokitzeko (entitate pribatuak).
- **129.410** euro hirugarren sektore sozialeko erakundeen egoitzetan egin beharreko inbertsioetarako.

Departamentuaren zentro propioak ez diren bestelako zentroetan beharrezko inbertsioak sustatzeko asmoz, 2025ean ondorengo partida nominatiboak ere eman dira:

4.5.- Inversiones

El área de Inversión elabora, desarrolla y controla las diferentes inversiones a realizar en el Departamento, para la construcción o adecuación de equipamientos sociales, tanto en centros propios como concertados. Se encarga asimismo de realizar el seguimiento y supervisión del mantenimiento de los inmuebles adscritos al departamento.

En el marco del Plan de Ayudas a la Inversion en centros de Servicios Sociales se han concedido subvenciones por un importe total de **11.500.000** euros, de acuerdo con el siguiente desglose:

- **1.919.064** euros para la creación de nuevos centros de competencia municipal.
- **535.020** euros para la ampliación, reforma y/o adecuación de centros existentes (entidades locales).
- **1.712.110** euros para la creación de nuevos centros (entidades privadas).
- **7.204.396** euros para la ampliación, reforma y/o adecuación de centros existentes (entidades privadas).
- **129.410** euros para las inversiones a realizar en las sedes de las entidades del tercer sector social.

Con el fin de promover las inversiones necesarias en centros no propios del departamento, se han financiado también durante el año 2025 las siguientes

subvenciones nominativas:

T. 28.- Dirulaguntzak / Subvenciones

Erakundea eta lana/Entidad y trabajo	Zenbatekoa/ Importe
Matia enea S.L. Fraisoro adinekoen egoitza Matia enea, S.L. Residencia de mayores Fraisoro	2.883.403 €
Gureak. Goienetxe marketing tailerra Gureak. Taller marketing Goienetxe	800.000 €
Urnietako Udala. Iraupen luzeko zaintzarako bizitokiak Ayuntamiento de Urnieta. Alojamientos para cuidados de larga duración	400.000 €
Goyeneche Fundacioa. Eibarko Garagunea Fundación Goyeneche. Garagune de Eibar	250.000 €
Guztira/Total	**4.333.403 €**

Departamentuaren zentro propioetan egindako inbertsioei dagokienez, **16.911.441,80** euroko gastua sortu da guztira. Jarduera hauek nabarmendu behar dira:

- Donostiako harrera pisuen fatxadak berritzeko obren bukaera.
- Donostiako harrera pisuak eraberritzeko obren bukaera.
- Azkoitiko San Jose egoitzaren psikogeriatria unitatea eraberritzeko obren bukaera.
- Donostiako Elizaran zentroko fatxadak eta estalkia konpontzeko obren bukaera.
- Arrasaten sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta espezializatuko zentrorako lokal bat egokitzeko obren bukaera.
- Donostiako Txara II bulego-eraikineko 5. solairua egokitzeko obren bukaera.

En lo que respecta a las inversiones realizadas en centros propios de este Departamento, se ha generado un gasto total de **16.911.441,80** euros. Cabe destacar las siguientes actuaciones:

- Finalización de las obras de renovación de las fachadas de los pisos de acogida de Donostia.
- Finalización de las obras de reforma de los pisos de acogida de Donostia.
- Finalización de las obras de rehabilitación de la UPSI de la residencia San José de Azkoitia.
- Finalización de las obras de reparación de fachadas y cubierta del centro Elizaran de Donostia.
- Finalización de las obras de acondicionamiento de un local para centro de atención especializada para mujeres víctimas de violencia sexual en Arrasate.
- Finalización de las obras de habilitación de la 5ª planta del edificio de oficinas Txara 2 de Donostia.

- Pasaiako Zahartzearen erreferentziazko zentroa eta lur azpiko aparkalekuaren obrak (Adinberri).
- Lasarteko Atsobakar egoitza handitzeko obrak.
- Zumaiako San Juan egoitza-zentroa handitzeko eta eraberritzeko proiektua idaztea.
- Zarautzen lokal bat adinekoentzako eguneko zentro izateko egokitzeko proiektua idaztea.
- Irunen lokal bat desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro izateko egokitzeko proiektua idaztea.
- Lazkaon sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta espezializatuko zentrorako lokal bat egokitzeko proiekua idaztea.
- Zumaiako San Juan egoitza-zentroko sarbide berriko pasabidea handitzeko obren hasiera.
- Donostiako Txara IIko lehen solairuan bulegoa gaitzeko obren hasiera.
- Irisasi harrera-zentroko erdisotoa berritzeko obren hasiera.
- Donostiako Ondarretako pasealekuko eraikina egokitzea, Txara 1etik lekualdatutako Gizagunea kokatzeko.

Halaber, Inbertsioetako Zerbitzuak Departamentuari atxikitako zentroen artapenari buruzko jarraipena egiteko ardura ere badu (117 zentro).

- Obras del centro de referencia en envejecimiento y aparcamiento subterráneo de Pasaia (Adinberri).
- Obras de ampliación de la Residencia Atsobakar de Lasarte.
- Redacción del proyecto de ejecución para la ampliación y reforma del centro residencial San Juan de Zumaia.
- Redacción del proyecto de ejecución de acondicionamiento de local para destinarlo a centro de día para personas mayores en Zarautz.
- Redacción del proyecto de ejecución de acondicionamiento de local para destinarlo a centro de día para personas con discapacidad en Irún.
- Redacción del proyecto de ejecución de Acondicionamiento de un local para centro de atención especializada para mujeres víctimas de violencia sexual en Lazkao.
- Inicio de las obras de ampliación de la pasarela del nuevo acceso al centro residencial San Juan de Zumaia.
- Inicio de las obras de habilitación de oficina en planta primera de Txara II de Donostia.
- Inicio de las obras de reforma de la planta semisótano del centro de acogida Irisasi.
- Acondicionamiento de edificio en el paseo de Ondarreta de Donostia para la ubicación del Gizagune trasladado desde Txara 1.

El área de inversiones tiene encomendado asimismo el seguimiento del mantenimiento de los centros adscritos al Departamento (117 inmuebles).

4.6.- Agenda, Berrikuntza eta Ebaluaketa

4.6.1.- Zainketa eta Gizarte Politiken Agenda 2030

Zainketen eta Gizarte Politiken Agenda 20>30 Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak (GFA) Gipuzkoako Lurralde Historikoko arretaren, zainketen eta laguntza neurrien eredua hamarkada honetan aldatzeko erabil dezakeen tresna malgua eta dinamikoa.

2021-2023 urteen artean, Zainketen eta Gizarte Politiken Agenda 2030, 35 jarduera programatu eta gauzatu ziren.

2024. urtean, Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak, Zainketen eta Gizarte Politiken Agenda 20>30 eguneratzeko prozesuari egin zuen. Eguneraketak horrek Agendako jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) 2024-2027 aldirako Plan Estrategikoaren ekintza ildoekin bateratzen da.

Eguneratze hori 2024-2027 Agendaren Garapen Planean gauzatzen da, eta lau aldaketa-ildo nagusi bultzatzen ditu:

a) Prebentzioa sustatzea gizarte-zerbitzuen sistema osoan (aurrea hartzea)

b) Zerbitzuen koordinazioa sustatzea eta egituratzea, arretaren, zaintzaren eta babesen ikuspegi *ekosistemikoa* sendotuz (gobernantza)

c) Berrikuntzaren eragina indartzea eta orientatzea zaintza pertsonalizaturantz,

4.6.- Agenda, Innovación y Evaluación

4.6.1.- Agenda 2030 de Cuidados y Políticas Sociales

La Agenda de Cuidados y Políticas Sociales 2030 es una herramienta flexible y dinámica de la que dispone el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales (DFG) para transformar durante esta década el modelo de atención, cuidados y apoyos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Entre los años 2021-2023 la Agenda de Cuidados y Políticas Sociales 2030 fue desplegada mediante la programación y ejecución de 35 actuaciones.

En el año 2024 el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales, puso en marcha un proceso de actualización de la Agenda de Cuidados y Políticas Sociales 2030. Dicha actualización alinea las actuaciones de la Agenda con las líneas de acción del Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

Esta actualización se concreta en el Plan de desarrollo de la Agenda 2024-2027 y se focaliza en impulsar cuatro líneas de cambio centrales:

a) Fomentar la prevención en todo el sistema de servicios sociales (anticipación)

b) Fomentar y estructurar la coordinación de servicios a partir de consolidar el enfoque *ecosistémico* de la atención, cuidados y apoyos (gobernanza)

c) Fortalecer y orientar el impacto de la innovación hacia el cuidado personalizado,

koordinaturantz eta komunitarioarantz (berrikuntza)

d) Kultura eta tresnak sistematizatzea eta sendotzea, zainketen kalitatea monitorizatu, ebaluatu eta egiaztatzeko gizarte-zerbitzuen sistema osoan (ebaluazioa)

coordinado y comunitario (innovación)

d) Sistematizar y consolidar la cultura y las herramientas para la monitorización, evaluación y acreditación de la calidad de los cuidados en el conjunto del sistema de servicios sociales (evaluación)

Proiektukako kudeaketa

2021-2023 aldian ikasitako ikasgai guztien ondorioz, 2024-2027 Ekintza Plana diseinatzeko eta kudeatzeko eredua berrikusi behar izan da. Berrikuspen hori zortzi printzipio nagusitan antolatzen da, baina lehenengoa honako hau da: 2024-2027 Ekintza Planaren hedapena antolatzea, jarduketak gauzatu beharrean **proiektuak gauzatzean oinarrituta**.

La gestión por proyectos

El conjunto de las lecciones aprendidas en el período 2021-2023, ha obligado a revisar el modelo de diseño y gestión del Plan de Acción 2024-2027. Esta revisión se organiza en ocho principios centrales, siendo el primero organizar el despliegue del Plan de Acción 2024-2027 sobre **la base de la ejecución de proyectos** en lugar de ejecutar actuaciones.

2024-2027 Agendaren proiektu motak

BERRIKUNTZA proiektuak. Berrikuntza proiektuak pertsonalizazioa, koordinazioa eta zaintza komunitarioa bultzatzen duten produktu, metodo, prozesu eta /edo zerbitzu berriak diseinatu, inplementatu eta / edo ebaluatzen dituzten proiektuak dira. Berrikuntza-proiektuek zuzeneko eragina dute gizarte-zerbitzuen xede-populazioetan.

KUDEAKETA proiketuak. Kudeaketa-proiektuak antolaketa-prozesuen diseinua, inplementazioa eta/edo ebaluazioa hobetzen duten proiektuei dagozkie, eta horiek zerbitzuen berrikuntzarako baldintzak sortzen dituzte pertsonalizazioaren, koordinazioaren eta zaintza komunitarioaren eremuan. Kudeaketa-proiektuek zeharkako eragina dute gizarte-zerbitzuen xede diren biztanleengan.

Tipos de proyecto de la Agenda 2024-2027

